



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko azaroaren 12a

110. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

—Nafarroako Osasun Mentalari buruzko Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena. Nafarroa Bai eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeek eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala deitutakoa erretira dezan jendaurreko prozeduratik eta alegazioak aurkezteko epetik. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Israelgo Estatuari zuzendutako boikot, zehapen eta desinbertsioen kanpainarekin bat egin dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eusko Jaurlaritzarekin akordio bat egin dezan inkesta soziolinguistiko bat egiteko, 2006an egin zen bezala. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2011rako Aurrekontuen Legerako behar diren aldaketak aurkez ditzan, zailtasun ekonomiko larriak dituzten udalei arreta egiteko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baititu Marokoko Gobernuak sahararren aurka egindako indarkeriazko ekintzak, eta sahararrei elkartasuna eta babesa adierazten baitizkie. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoko 2.2.1 neurriei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak Tuterako Katedrala dela-eta egindakoei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Kulturaren eta Turismoaren Behatokiak 2010. urtean zehar eginiko lanari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (22. or.).
- Galdera, azkeneko hiru urteetan oinarritzko errenta jaso duten etxegabeen kopuruari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Leitzako Udalarri Erleta eskolan igogailu bat jartzeko dirulaguntza ukatzeko izandako arrazoiei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Foruzaingoari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (24. or.).
- Galdera, NA-411 eta NA-4100 errepideetako bidegurutzeko seinale horizontalei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (25. or.).
- Galdera, larrialdietako probak egin ondoren gaixoak ospitaleko gelara eramateko prozeduran gertatzen diren atzerapenei buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (25. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2010eko urriaren 22an onetsitako erabakiak (27. or.).
- Nafarroako Errepideei buruzko III. Plan Zuzendaria (2010-2018). Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak onetsia (35. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2010eko azaroaren 24ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege

proiektua 2010eko maiatzaren 28ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2010eko azaroaren 30eko eguerdiko hamabiak**

arte luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2010eko uztailaren 2ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Osasun Mentalari buruzko Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 11n egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeek eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute Nafarroako Osasun Mentalari buruzko Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena, eta presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea eskatu dute.

Kontuan hartuta berriki izapidetu dela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen Nafarroako Osasun Mentalari buruzko Foru Lege proposamen bat, antzeko testua duena, Parlamentuak badaki zein den Gobernuak lege-ekimen horri buruz duen iritzia. Bestal-

de, oraingo bilkuraldia amaitzeaz da, eta, hala, justifikatuta dago izapidetza presaz egitea. Aurrekoak kontuan hartuta, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 107., 109., 147. eta 157. artikuluetan xedatutakirekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ERABAKI DA:

1. Agintzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duen Nafarroako Osasun Mentalari buruzko Foru Lege proposamena argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

2. Foru lege proposamena presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamena Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoa bete dezan, eta Gobernuari ohartaraztea irizpidea adierazteko epea azaroaren 18an amaituko zaiola, 12:00etan.

4. Zuzenketak aurkezteko epea irekitzea foru lege proposamena eztabaidatuko den Osoko Bil-

kuraren bezperako 12:00ak arte. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2010eko azaroaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Osasun Mentalari buruzko Foru Lege proposamena, Osasun-bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena.

ZIOEN AZALPENA

Europak bere helburuetako baten gisara hartu du osasun mentala, eta helburu hori Nafarroako Foru Komunitatearen helburua ere bada, Osasun Sistema Nazionalaren helburua den bezala. Osasun Sistema Nazionalaren Osasun Mentalaren Estrategiak, Lurraldeen arteko Kontseiluak 2006eko abenduaren 11n onetsitakoak, zenbait ekimen ezarri zituen nahaste mentala daukaten pertsonen zuzendutako prebentzio, diagnosi goiztiar, tratamendu, errehabilitazio eta gizarteratze jarduerak bultzatzeko.

Nafarroan, 1986ko erreforma psikiatrikoak jada bilatzen zuen pertsona horiek ahal den eskubide gehien izan ditzaten, edo, gutxienez ere, gainerako herritarren eskubide berak. Nafarroako Ospitale Psikiatrikoak urtetan garrantzi handiko eginkizun bat bete bazuen ere, bai osasun laguntzari dagokionez eta egoitza alderdiari dagokionez, bai babesik gabe dauden gaixotasun mentalen bat duten pertsonen babes integrala bilatzeari dagokionez, Erreforma Psikiatrikorako Ministerio-batzordearen 1985eko txostena exijentzia sozial eta familiarren eta interesdunen exijentzien ondoriozko erreakzio gisa sortu zen, eta funtsezko aldaketa bat eragin zuen osasun mentalaren laguntza ulertzeko moduan. Horrela, Ospitale Psikiatrikoak bere izena eta edukia aldatu zituen, eta San Frantzisko Xabierkoa Zentro Psikogeriatriko bihurtu zen abuztuaren 17ko 246/1998 Foru Dekretuaren bidez.

Jada erreforma psikiatrikorako txostenean zehaztu zen foru erkidegorako osasun mentaleko plan bat jarriko zela abian.

Planak, diziplina arteko ikuspegi biopsikosozial batean oinarrituta zegoenak, bere baitan hartzen zuen osasun mentala osasun sistema orokorrean integratzea eta laguntza sare oso bat sortzea.

Aldi berean, Osasun Mentaleko Zuzendaritza sortu zen, maila kuantitatiboan eta kualitatiboan jauzi handi bat emateko bidea emanen zuen egitu-

ra batekin. Garai hartan, gaixotasun mentalak zituzten pertsona asko eroetxe eta asilo gisako ospitale psikiatriko izandakoetatik atera eta gizarteratu ahal izan ziren, eta ahalegin aktibo handi bat egin zen pertsona horiei lotutako estigma deuseztatzeke.

Erreforma psikiatrikoak, funtsean, izaera integral eta integratzailea izan zuen erkidegoan eta gizarte-ehunaren osotasunean, eta baliagarri gertatu da antolamendua dela-eta egin diren aldaketa prozesuetan inplikaturiko agenteen parte-hartzea bultzatzeko. Horren ondorioz, Osasunari apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorren esparruan, foru erkidegoan zenbait bitarteko garatu izan dira.

Gaur egun, eraldaketa-neurri garrantzitsuak planteatzen dira, batetik, Nafarroan osasun mentala bultzatzeko, laguntza komunitarioaren ereduari jarraituz, eta, bestetik, Osasun Mentalaren Sarea horren arabera antolatzeko. Izan ere, horretarako konpromisoak hartu ziren Nafarroako Osasun Plan Estrategikoan, zeina hain beharrezkoa izan den, eta Osasun Mentalaren Estrategia Nazionalean; gainera, premiazkoa da San Frantzisko Xabierkoa Zentro Psikogeriatrikoaren plan zuzendaria egitea, errealitatearen eta duen inguruaren arabera betiere.

Behin baino gehiagotan esan izan da osasun mentalaren bigarren erreforman edo erreformaren bigarren fasean gaudela.

Neurri horien artean daude osasun mentaleko zuzendaritza bat sortzea, zentro psikogeriatrikoaren plan zuzendaria garatzea eta programa berriak abian jartzea.

San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren plan zuzendariaren garapenak berekin dakar haren egitekoan funtsezko aldaketa bat egitea, eta baliabideak unitate eta programa berri bilakatzea. Horrekin Osasun Mentalaren Sareko laguntza-zerbitzuen eskaintza handitu nahi da. Horrek berekin dakar erakundea desagertzea eroteke gisa, eta unitate berriak sortzea; unitate horiek, orain, beste tresna batzuen gisara sartuko dira sarearen antolamenduan.

Eremu sozio-sanitarioa sartzeko da alde horretako berritasun nagusia, zeren eta gaur arte izan ez duen edukia ematen baitzaio eta konponbide bat aurkitzen baitu osasun mentalaren arlorako, hain zuzen ere orain arte ez bezala.

Laguntza-programa asertziozkoak eta komunitarioak jarri behar dira abian, eta esku-hartze goiztiarrekoak, psikoterapiakoak, nortasunaren nahasteetarakoak eta gaixoak oneratzeko bestelako

programa gaurkotuagoak, osasun mentaleko gai-xoen premiei erantzun egokituagoa emateko.

Programa berri hauek –esate baterako, patologia dualeko unitateak, espetxe-psikiatriako unitatea, segurtasun handiko unitatea, nerabeentzako subakutuen unitatea, drogazaleen unitatea, haur eta gazteen unitatea, etorkinentzako programak, bazterkeria pairatzeko arrisku gehien duten pertsonentzakoak, etxerik gabekoentzakoak– legean jasota ageri behar dute, lan-ildoak zehazte aldera, zainketen jarraitutasuna ziurtatze aldera eta laguntzaren zatikatzea ekidite aldera.”

Gaur egun, osasun mentalaren arloko estrategia osoa Helsinkiko Adierazpenaren oinarritzen da. Izan ere, adierazpen horrek nahaste mentalen arloko sustapenaren eta prebentzioaren ikuspegi integratuaren alde egin zuen, bai eta erakundeen arteko tratamenduaren eta koordinazioaren aldeko ikuspegia ere. Halaber, nahaste mentala duten pertsonen laneratzea eta gizarteratzea sustatzen ditu.

Nafarroako Osasun Mentalaren Sarea etorkizunerako orientatu beharra dago helburu berriak batekin, hain zuzen ere Nafarroako herritarren premietarako laguntza arloko emaitzarik onenak bermatuko dituen antolamendu-eredu baten bitartez. Haren egiturak honakoetan oinarritutako balioak sustatu eta proiektatu beharko ditu: kalitatea, ebidentzia, lidergoia, iraunkortasuna, segurtasuna, berrikuntza eta harreman etikoak.

I. KAPITULUA

Xedapen Orokorrak. Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura. Osasun Mentalaren Sarea

1. artikulua. Foru lege honen xedea.

Foru lege honek hurrengoak ditu xede:

a) Arretaren paradigma aldatzea osasun mentalaren arloko laguntzaren antolaketa ulertzeko moduari dagokionez. Paradigma horretan, herritarrek giza eskubideekiko erakusten duten kontzientzia eta sentiberatasun gero eta handiagoek izanen dute eragina, eta erabiltzaileei eta haien familiei emanen die protagonismoa beren premiak definitzeko dagokionez.

b) Gurasoen eta eskolaren egitekoa indartzea pertsonaren bizitzaren lehen urteetan, gaixotasun mentalaren detekzio goiztiarrerako modu gisa; osasun mentala sustatzea lanean; zahartze mental osasungarria babestea; gaixotasun mentala izan dezaketen arrisku-taldeekin lan egitea; depreioari eta suizidioari aurrea hartzea; indarkeriari eta substantzia kaltegarrien kontsumoari aurrea

hartzea; espetxean gaixo mentalei laguntzen esku hartzea; desabantaila sozialak murriztea eta estigmatizazioari aurrea hartzea, Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren programen bidez.

c) Kalitate sistema ezartzea zentro berekietarako zein itunduetarako, laguntza etengabe hobetzea ahalbidetzeko.

d) Informazio sistema bat ezartzea, teknologia berrietan oinarritua, zeinak aukera emanen baitu laguntzarako tresna publiko edo itunduen artean komunikazioa ezar dadin eta haien jardueretan koordinazioa eta integrazioa egon daitezten. Halaber, gaixoen osasunaren gaineko jardueren kalitatea eta eragina ebaluatuko dira, adierazleen multzo baten bidez.

e) Osasun mentalerako garrantzi handieneko prozesu klinikoetan praktika klinikoko gidak erabil daitezten sustatzea. Prozesu horiek, betiere aplikatu daitezkeen ebidentzia kliniko onenean oinarrituko dira, eta jarduteko, zerbitzuak integratzeko eta ebaluazioa egiteko moduak bilduko dituzte.

f) Mekanismo, erakunde eta sareak sortzea eta bultzatzea, bai laguntza erakoak bai herritarrei zuzendutakoak, Osasun Mentaleko Estrategian deskribaturiko printzipioak abian jartzeko, ezartzeko eta garatzeko baldintzak ezarri ahal izateko. Hona:

- Autonomia.
- Jarraitutasuna.
- Irisgarritasuna.
- Ulergarritasuna.
- Ekitatea.
- Oneratze pertsonala.
- Erantzukizunak hartzea.
- Kalitatea.
- Eraginkortasuna.
- Efizientzia.

g) Antolamendu erako neurriak eta aurrekontu-neurriak ezartzea, bermatzeko interesa duten talde guztiek parte har dezaten kalitatearen hobekuntza jarraituko prozesuetan.

h) Osasun mentaleko arazo garrantzitsuenean, prozesuen arabera kudeaketa sartzeko eta sustatzea, gaixoei laguntza ematen edo haien ingurunean esku hartzen duten edo esku har dezaketen profesionalen eta tresna sanitario, sozial edo komunitario desberdinen –berekien nahiz itunduen– jarduerak integratuz.

i) Profesionalen prestakuntza jarraitua eta ikerketa bultzatzea, hobekuntza jarraiturako elementu gisa.

j) Nafarroako Foru Komunitatean osasun mentalaren arlorako dauden laguntza-zerbitzuak berrantolatzea eta osasun mentaleko sarea osatzen duten zentroak eta tresnak egungo beharriaz netara egokitzea.

Horretarako, honakoak egin beharko dira:

1. Osasun Mentaleko Zuzendaritza sortzen da. Kudeaketarako organo zentrala izanen da, osasun mentalaren arloko programen eta jardueren erantzukizun tekniko gorenaren duena Nafarroako Osasun Erregioaren esparruan. Haren egitura eta funtzionamendua definitu eta erregulatzea, laguntza prozesuaren kudeaketa klinikora orientaturiko kudeaketa autonomoa duen entitate independente gisa. Osasun Mentaleko Zuzendaritzak honako helburu orokorrak izanen ditu:

a) Nafarroako Osasun Mentalaren Plana presatzean eta gaurkotuta edukitzea.

b) Osasun Mentalaren Sarearen plangintza egitea eta hura antolatu eta ebaluatzea.

c) Nahaste mentalak dituzten edo osasun mentaleko laguntzarako premia duten pertsonen osasun mentala, prebentzioa, laguntza, zainketak eta errehabilitazioa sustatzea. Nahaste mentalak dituzten pertsonekin lotu ohi den estigma deuseztatzen eta pertsona horien egoera normalizatzen laguntzea.

d) Nafarroako herritarrei behar diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak ematea diagnosirako, tratamendurako eta errehabilitaziorako.

e) Kalitatezko osasun laguntze ematea, esleitutako populazioaren osasun mentaleko premiak asetzerantz bideratutako programen bitartez. Bilatuko da sareko tresna desberdinetako edo bestelako baliabide, maila, zerbitzu edo departamentuetako profesionalen artean ezagutza, garapen, antolamendu eta koordinazio hobekuntza.

f) Ikerketarako, prestakuntza jarraiturako, aurregradurako, gradu ondokorako eta espezializazioko jarduerak eta programa zientifikoak garatzea eta haietan laguntzea eta parte hartzea.

g) Nafarroako Osasun Planetik eta, horren ondorioz, Osasun Mentaleko Planetik eta nazio mailako eta Europako jarraibideetatik heldu diren eginkizunak erantzukizunez betetzea eta haiei dagozkien jarduerak aurrera eramatea.

h) Prozesuen araberrako laguntza kudeatzea.

i) Intereseko taldeen parte-hartzea laguntzaren antolaketan eta hobekuntzan integratzea.

j) Osasun Mentaleko laguntza-zerbitzu diziplina anitzekoak sortzea, psikiatreek, psikologo klinikoek, erizaintzako diplomadunek, gizarte-langileek, okupazio-monitoreek, erizaintzako laguntzaileek eta planen helburuak ziurtatzeko egoki irizitako beste-lako langileek osatuak: Drogamenpekotasun Plana, Espetxe-psikiatriako Plana, Nerabeei Laguntza Emateko Plana eta sor daitezkeen beste-lakoak.

2. Nafarroan, Osasun Mentaleko Sarearen zerbitzuak eta zentro berekiak antolatzen dira, eta hiru arlo bereizten dira: ospitaleratzea, erkidego-laguntza eta osasun mentaleko zentroak eta osasun mentaleko tarteko baliabideak.

3. Zentro Psikogeriatrikoa desagertzen da Osasun Mentaleko Zuzendaritzari atxikitako erakunde gisa, eta haren ordez, arloetan integraturiko unitate desberdinak agertzen dira. Zentro Psikogeriatrikoaren zuzendaritza amortizatzen da, eta haren baliabide teknikoak eta laguntzazkoak dagozkien arloetan integratzen dira, beren izatearen arabera, ospitaleratze arloko baliabide gisa, tarteko baliabide gisa edo entitate sozio-sanitarioko unitate gisa. Haien egitura administratiboa Osasun Mentaleko Zuzendaritzari atxikitzen zaio, eta haren antolamenduzko alderdiak eta alderdi administratiboak zentralizatu eta indartzen dira Osasun Mentaleko goi erakunde berriaren bitartez. Amortizatzeak diren Zentro Psikogeriatrikoko unitate eta baliabideak jarduera eta egitura berriak finantzatzeko eta haiek ezartzeko erabiliko dira.

2. artikulua. Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura.

1. Osasun Mentaleko Zuzendaritza sortzen da, eta kudeaketarako organo zentral gisa egituratzen da. Organo zentral horrek, izan ere, Osasun Mentaleko programen eta jardueren erantzukizun tekniko gorenaren hartzen du bere gain, Nafarroako osasun erregioaren esparruan.

2. Osasun Mentaleko Zuzendaritzak lehentasun gisa izanen du Nafarroako Osasun Mentalaren Plana prestatu, gaurkotu eta abian jartzea, baliabide berekiekin eta Osasun Departamentuaren Plangintza Zerbitzuarekin lankidetzan.

3. Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren barruan honako zuzendaritza-organok sortzen dira:

a) Osasun Mentaleko arloko laguntza-zerbitzuak sortzen dira, beren zerbitziburuekin. Honakoak izanen dira arloak:

• Ospitaleratzearen Arloko Zerbitzua.

- Erkidego-laguntzaren Arloko Zerbitzua eta Osasun Mentaleko Zentroak.

- Tarteko Baliabideen Zerbitzua.

b) Kudeaketa Zerbitzua sortzen da. Hari atxikitzen zaizkio Administrazio Atala eta Zerbitzu Orokorren Atala, bai eta Zentro Psikogeriatrikoko haren menpeko unitateak ere.

c) Langileriaren Atala sortzen da, Kudeaketa Zerbitzuari atxikia. Zentro Psikogeriatrikoko Administrazioaren Ataleko lehenagoko Langileria Unitatea integratzen du.

d) Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoa sortzen da. Hari atxikitzen zaizkio Osasun Mentaleko Zuzendariordetzaren Arloko eta Zentro Psikogeriatrikoko burutzak, haien menpeko unitateekin.

4. Honakoak amortizatzen dira:

a) Zuzendariordearen lanpostua eta Osasun Mentaleko Zuzendariordetzako Programen buruaren lanpostua amortizatzen dira.

b) San Frantzisko Xabierkoa Zentro Psikogeriatrikoko Laguntza eta Prestakuntza programetako zuzendariaren lanpostua eta zuzendari teknikoaren lanpostua amortizatzen dira, bai eta Eguneko Zentroko zuzendariordearen lanpostua ere.

5. Gaur arte Errehabilitazioko Klinikari atxikitako Farmaziako eta Dietetikako Atala Osasun Mentaleko Zuzendaritzari atxikitzen zaizkio.

6. Osasun Mentaleko Zuzendaritzan integraturiko baliabideak foru lege honetan ezarritako organoek kudeatuko dituzte.

3. artikulua. Une honetan, honako baliabideek osatzen dute Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren Sarea:

1. Osasun Mentaleko Zuzendaritza.

2. Erkidego-laguntzaren Arloa eta Osasun Mentaleko Zentroak: Tuterako eta Lizarrako barrutiei atxikitako baliabideek menpekotasun organiko bikoitzari eutsiko diote: dagokien barrutiaren menpekotasun organikoa eta Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren menpekotasun funtzionala. Honako baliabideek osatzen dute Osasun Mentaleko Zentroen Sarea:

- IA (Alde Zaharra)
- IB (Burlata)
- IIA (Arrosadia)
- IIB (Ermitagaña)
- IC (Arrotxapea)

- IIC (Donibane)

- III (Lizarra)

- IV (Tafalla)

- V (Tutera)

3. Tarteko Baliabideen Arloa: Tuterako eta Lizarrako barrutiei atxikitako baliabideek menpekotasun organiko bikoitzari eutsiko diote: dagokien barrutiaren menpekotasun organikoa eta Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren menpekotasun funtzionala. Honako baliabideek osatzen dute Tarteko Baliabideen Arloa:

- Errehabilitazio Klinikak.

- "Natividad Zubieta" Haur eta Gazteen Eguneko Ospitalea.

- Osasun Mentaleko eguneko ospitaleak: I. Eguneko Ospitalea eta II. Eguneko Ospitalea Tuterako Eguneko Ospitalea.

- Drogamenpekotasunetarako Eguneko Ospitalea.

4. Ospitaleratzearen Arloa: Nafarroako Ospitaleari, Bideko Ama Birjina Ospitaleari eta Tuterako Barrutiar atxikitako baliabideek menpekotasun bikoitzari eutsiko diote: dagokien barrutiaren menpekotasun organikoa eta Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren menpekotasun funtzionala. Honako baliabideek osatzen dute Ospitaleratzearen Arloa:

- Nafarroako Ospitaleko Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitatea.

- Bideko Ama Birjina Ospitaleko Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitatea.

- Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitatea.

5. Eremu soziosanitarioa San Frantzisko Xabierkoaren Zentro Psikogeriatrikoko egungo baliabideak eta unitateak ondoren, beren laguntza-edukiaren arabera, dagokien arloaren edo esparru sozio-sanitarioaren menpe geratuko dira.

II. KAPITULUA

Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren antolaketa

4. artikulua. Zuzendaritzako, kudeaketako eta parte-hartzeko organo gorenak.

Osasun Mentaleko Zuzendaritza modu deszentralizatuan kudeatuko da, Gobernu Kontseiluaren eta Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen zuzendaritza gorenaren pean; hain zuzen ere honako organoen bitartez:

a) Zuzendaritza organoak

- Zuzendaritza Batzordea.
- Osasun Mentaleko zuzendaria.
- Plan Soziosanitarioaren koordinatzailea
- Arloko laguntza-zerbitzuetako buruak.
- Kudeaketa Zerbitzuko burua.
- Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko burua.

b) Kontsulta eta partaidetza organoak: Laguntzako Batzar Teknikoa.

5. artikulua. Zuzendaritza Batzordea.

1. Zuzendaritza Batzordea honakoek osatuko dute: Osasun Mentaleko zuzendariak, arloko laguntza-zerbitzuetako buruek, Kudeaketa Zerbitzuko buruak eta Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko buruak.

2. Zuzendaritza kargudunetako batek idazkari lanak eginen ditu eta hartutako erabakien aktak eginen ditu.

3. Zuzendaritza Batzordeko burua Osasun Mentaleko zuzendaria izanen da, bera baita haren zuzendaritza gorenaren arduraduna. Batzordeko buruak zuzendaritza taldea zuzendu eta koordinatuko du, hari informazioa emanen dio eta taldearen kudeaketa kontrolatuko du.

4. Zuzendaritza Batzordeak helburu gisa izanen du Osasun Mentaleko giza baliabideak eta baliabide fisiko eta finantzarioak bermatzea, bai eta laguntzako helburuak eta helburu finantzarioak lortzea ere. Horrek kalitate eta efizientzia mailak igozteko ekarri beharko du.

6. artikulua. Osasun Mentaleko zuzendaria.

Osasun Mentaleko zuzendaria, Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen zuzendaritzapean, kudeaketarako organo zentrala izanen da eta osasun mentalaren arloko programa eta jardueren ardura tekniko gorena hartuko du, Nafarroako osasun erregioaren esparruan.

7. artikulua. Osasun Mentaleko zuzendariaren eginkizunak.

Osasun Mentaleko zuzendariak honako eginkizun eta eskurantzak izanen ditu.

a) Nafarroako Osasun Mentalaren Plana prestatzean eta gaurkotuta edukitzea.

b) Osasun Mentalaren Sarearen ordezkaria izatea eta sare horren agintari gorena eta arduradun nagusia izatea.

c) Honakoetan jardutea: osasun mentaleko zentro, tresna, unitate, zerbitzu eta profesionalen eta prebentzioko, sustapeneko, laguntzako, errehabilitazioko eta laneratzeko programen goi zuzendaritza teknikoa, programazioa, koordinazioa, kudeaketa eta ebaluazioa egitea, bere esparruari dagokionez.

d) Gaixoari emandako arretan eta zainketetan, laguntzaren kalitatea, konfidentzialtasuna, pertsonalizazioa eta humanizazioa sustatzea, eta gaixoen eta familiaren autonomia eta laguntza-prozesuak inplikazioa sustatzeko politikak bultzatzea.

e) Nafarroako Osasun Planaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren helburuen garapena sustatzea, bai eta jarraibide nazional eta europarretatik heldutakoena ere. Kudeaketa kliniko bultzatzea. Helburuak eta programazioak egitea eta jarduerak zuzentzea.

f) Osasun Mentalaren Sarearen zerbitzuen zorroa proposatzea, dauden zentro, tresna, zerbitzu edo unitateekin, eta inplikaturiko baliabideak antolatzea.

g) Deribazioak egiteko prozedurak, arauak, zirkuituak eta irizpide zehatzak ezarri eta aplikaraztea, arintasuna eta gaixoentzako laguntza integratzea bermatzeko.

h) Sare osoaren urteko eta urte anitzeko planak garatu, proposatu eta kudeatzea; organo eskudunei plan horien berri ematea, eta, aldira, kudeaketari buruzko txostena edo oroitidazkia aurkeztea.

i) Osasun Mentaleko Sareak eta Oinarrizko Osasun Laguntzako Sareak gainerako zentro eta zerbitzu espezializatuekin eta beste zentro, organismo edo departamentu batzuekin daukaten koordinazio funtzionala bermatzea.

j) Informazio sistema bat sortu eta mantentzea, informazio klinikoari behar den moduan eusteko eta osasun zerbitzu guztien arteko informazio-fluxu egokiak bermatzeko, berariazko erreferentzia eginez historia kliniko eta jarduera-erregistroak osatzeko arauak.

k) Osasun mentalaren arloko ikerketa- eta irakaskuntza-programak egin eta onets daitezkeen sustatzea.

l) Itundutako baliabideak kudeatzea. Deribazioak baloratu, aitortu eta kontrolatzea. Osasun mentalaren arloko laguntza-prestazioak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskabideak baloratu eta, kasua bada, baiestea.

m) Kalitate integraleko sistema bat garatzea, gaixoak jasotako zerbitzuaren eta haren emaitza

klinikoen kalitatea etengabe hobetzen eta ebaluatzen dela bermatzeko. Zuzendaritzari atxikitako zentro eta zerbitzuetako arduradunak ebaluatzea eta ebaluazio horren berri ematea.

n) Beste sektore publiko eta itundu batzuekiko eta baliabide komunitarioekiko lankidetzeta eta koordinazioa sustatzea.

o) Daukan karguarengatik sartzen deneko zuzendaritzako edo partaidetzako organoetan aktiboki parte hartzea. Bere gain hartzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak esleitzen dizkion eginkizun guztiak.

8. artikulua. Osasun Mentaleko Arloko Laguntza Zerbitzuetako buruak.

Arloko laguntza-zerbitzuetako buruak dira beren arloko osasun-zerbitzu eta -jarduerak eta zerbitzu eta jarduera tekniko eta laguntzakoak zuzenduko dituztenak, Osasun Mentaleko zuzendariaren pean.

9. artikulua. Osasun Mentaleko arloko laguntza-zerbitzuetako buruen eginkizunak.

Honakoak izanen dira arloko laguntza-zerbitzuetako buruen eginkizunak eta atribuzioak:

a) Laguntza eta kudeaketa plana egitea eta beren esparruko jarduerak, laguntza prebentiboarekin, senda-laguntzarekin eta errehabilitazioko laguntzarekin lotutakoak, kudeatu eta zuzentzea, kalitateko, lidergoko, efizientziako eta segurtasuneko maila onenak lortzeko.

b) Zerbitzuen Zorroa lantzea eta indarrean edukitzea. Oinarrizko prozesuak definitzea. Jarduteko gidak, prozedurak edo ohiko protokoloak sistematizatzea. Oinarrizko funtzionamendu arauak garatzea eta gaixoen zirkuituak definitzea. Emaitei buruzko informazioa ematea, aldizka.

c) Antolamendu eredia proposatzea, jarduerari erantzun egokia emateko, eta, era berean, ohiz kanpoko berrantolaketa proposatzea baldin eta beharrezkoa bada emaitza hobekuntza lortzeko laguntza-jarduera integralean eta integratuan, jarduera administratiboan, irakaskuntza-jardueran edo ikerketa-jardueran.

d) Berrikuntzarako, hobekuntza jarraiturako eta kalitatearen ebaluaziorako eskura dauden egiturazko edo antolamenduzko mekanismoak sustatu eta abian jartzea. Dokumentazio klinikoko, informazioko eta laguntzaren kalitatea kontrolatzeko sistema bat mantentzea, bai eta jarduerari buruzko erregistroak eta laguntzarako prozedura administratiboak ere. Oroitidazkiak ezartzen diren aldien arabera egitea.

e) Laguntza-jarduerari, irakaskuntza-jarduerari edo ikerketa-jarduerari buruzko proposamenak egitea edo jasotzea, eta haiek administratzea, onepena eman ondoren. Irakaskuntzako eta ikerketako urteko programak egitea.

f) Dagokion esparru funtzionalean, laguntza-emaitzak eta emaitza zientifikoak ebaluatzea. Halaber, bere unitateetako arduradunak eta profesionalak, oro har, ebaluatzea, eta lortutako emaitzei buruzko informazioa ematea.

g) Profesionalekin ekitaldi bakoitzerako helburuak ezarri eta ituntzea, eta esleitutako aurrekontuko baliabideak administratzea.

Hori guztia, Osasun Mentaleko Saretik eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik heldu diren jarraibideak betez.

h) Atxikitako unitate organiko eta funtzionaleko arduradun guztiak aldizka ebaluatzea.

i) Bere esparruko jarduerak beste unitate organiko, tresna, zentro, zerbitzu edo departamentuetako jarduerekin koordinatzea. Osasun Mentaleko Zuzendaritzari proposatzea gaixoak beste arlo edo zentro batzuetara deriba ditzan, bere eskumeneko laguntza-aukerak gaindituta baldin badaude.

j) Bere titulazioari dagozkion laguntza-jarduerak garatzea.

k) Osasun Mentaleko zuzendariari informazioa eta aholkua modu jarraituan ematea.

l) Daukan karguarengatik sartzen deneko zuzendaritzako edo partaidetzako organoetan aktiboki parte hartzea. Osasun Mentaleko zuzendariari esleitzen zaizkion funtzio guztiak bere gain hartzea.

10. artikulua. Osasun Mentaleko Arloak

1. Honakoak ezartzen dira Osasun Mentaleko Arlo gisa:

- Ospitaleratzearen Arloa:

- Erkidego-laguntzaren Arloko Zerbitzua eta Osasun Mentaleko Zentroak.

- Tarteko Baliabideen Arloa.

2. Arloko laguntza-zerbitzuetako buruek izanen dute kasuko arloa koordinatzeko erantzukizuna, bai eta Osasun Mentaleko zuzendariak esleitzen dizkien gainerako eginkizunak garatzeko erantzukizuna ere.

11. artikulua. Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko burua.

Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko buruak bere kargu dauzka sareak eskaintzako tresna, zentro, unitate edo programetako laguntza-

baliabide ez-fakultatiboen plangintza, zuzendaritza eta ebaluazioa, bai eta zuzenean esleitzen zaizkion baliabideen kudeaketa ere.

Honako eginkizun eta atribuzioak dagozki Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoaren buruari:

a) Helburuak definitu eta garatzea, Nafarroako Osasun Mentaleko Sarearen helburuekin bat, eta bere kargu dauzkan profesionalen jarduerak eta emaitzak koordinatu eta ebaluatzea.

b) Esleitutako baliabideen plangintza, antolaketak eta koordinazioa, kalitate hobea lortzeko. Bere kargu dauzkan unitateen funtzionamendua, haie-tan sarturiko langileak eta profesionalak ebaluatzea.

c) Zuzenean esleituta dauzkan giza baliabideak kudeatzea eta laguntzako langile ez-fakultatiboen premiak eta eskuragarritasuna koordinatzea.

d) Sustatzea langile ez-fakultatiboek eta langile fakultatiboek ematen dituzten zerbitzuak ezartzen diren laguntza-prozesuen kudeaketarako beste baliabide batzuk integratzen direla.

e) Esleitutako baliabide materialak, ekipamendu klinikoarekin lotutakoak eta osasun produktuak modu eraginkor eta efizientean kudeatzea, eta haiek egoki erabili eta mantentzeko daitezkeen sustatzea.

f) Zainketen eta laguntzaren kalitatea hobetzen lagun dezaketen berrikuntzarako edo hobekuntzarako neurriak edo ekimenak proposatzea.

g) Unitateen laguntza-jarduera ez-fakultatiboa koordinatzeko prozedurak finkatu eta administratzea. Zentroen eta profesionalen arteko koordinazio orokorra erraztea.

h) Zerbitzu eta unitateetako laguntzako arduran edo/eta arduradun fakultatiboen jarduera koordinatzea, eta langileen kudeaketaren, irakaskuntzaren eta prestakuntzaren alderdietako irizpideen batasuna bermatzea.

i) Osasun Mentaleko zuzendariak berariaz eskuordetutako gainerako eginkizunak hartzea.

j) Osasun Mentaleko zuzendariari informazioa eta aholkua modu jarraituan ematea.

k) Daukan karguarengatik sartzen deneko zuzendaritzako edo partaidetzako organoetan aktiboki parte hartzea. Osasun Mentaleko zuzendariari esleitzen zaizkion funtzio guztiak bere gain hartzea.

12. artikulua. Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko buruak.

1. Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko buruaren azpian Erizaintzaren Arloko buruak egonen dira hierarkikoki.

2. Erizaintzaren Arloko buruak izanen dira esleitzen zaizkien erizaintzako unitateak koordinatzeko ardura izanen dutenak; halaber, Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko buruak esleitutako gainerako funtzioak ere izanen dituzte.

13. artikulua. Kudeaketa Zerbitzuko burua.

Kudeaketa Zerbitzuko burua da Osasun Mentalaren Zuzendaritzako egitura administratibo eta langileen egitura osoaren ardura bere gain hartuko duena, betiere Osasun Mentalaren zuzendariaren menpean.

14. artikulua. Kudeaketa Zerbitzuko buruaren eginkizunak.

Honakoak izanen dira Kudeaketa Zerbitzuko buruaren eginkizunak eta atribuzioak:

a) Bere zerbitzuari atxikitako unitateen funtzionamendua zuzendu, koordinatu, sustatu eta ebaluatzea.

b) Osasun Mentalaren Zuzendaritzaren baliabide material finko eta mugikorren kontserbazio funtzionala bermatzea, eta atxikitako ondarea egoki kudeatzea.

c) Urteko aurrekontuak prestatu eta kudeatzea, gastuetakoak zein diru-sarreretakoa.

d) Osasun Mentalaren Zuzendaritzako unitateen behar diren baliabide materialen hornikuntza kudeatzea; halaber, hornigai horiek egoki biltegitatu eta unitate eskatzaileei banatzen zaiela kudeatzea.

e) Osasun Mentalaren Zuzendaritzarako ibilgetuaren eta erabiltzen ari den ekipamenduaren mantentze prebentiborako planak sustatu eta kontrolatzea, eta horiek guztiak konpondu eta birjarriko direla segurtatzea.

f) Ahal den hornikuntza-kontratu gutxien egin zerbitzuek funtziona dezaten, eta konponketa eta mantentze lan errazak egitea, haien zenbatekoak hornidura txikietarako ezarritako mugak gainditzen ez baditu.

g) Konturako ziurtagirien, material inbentariagarriaren fakturen, bestelako hornigaien, konponketa eta mantentze lan errazen eta laguntza tekniko kontratuen ordainketak baimentzea, organo eskudunak haien gastua onetsi badu.

h) Behar diren aplikazio informatikoak eta laguntza administratiboak ezar eta erabil daitezela eta funtziona dezatela zuzendu eta koordinatzea.

i) Osasun Mentaleko Zuzendaritzan langileriarren arloko eginkizunak zuzendu, koordinatu, sustatu eta ebaluatzea.

j) Aldi baterako langileen kontratazioa baimendu eta formalizatzea, erregelamenduz ezarritako prozeduraren bitartez.

k) Falta arinengatiko diziplina-espeditentak ireki eta ebaztea.

l) Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoaren barreneko lanpostu zehatz bati langileak atxikitzea, eta lanerako ezgaitasun egoeran, guztizkoan edo absolutuan, dauden langileei edo lanerako gai izateari buruzko deklarazio proposamenak egitea.

m) Erregelamendu bidez ezarritako lanaldi murrizketak, soldata gabeko lizentziak, amatasuneko lizentzia soldatadunak, bularra emateko baimenak eta gaixotasunaren ondorioz baja egoeran dauden langileen toki aldatzeak erabakitzea.

n) Zerbitzua dela-eta egin beharreko joan-etorriak baimentzea.

o) Osasun Mentaleko Zuzendaritzari atxikitako langileekiko prozedura administratiboen eta lanharremanen erantzukizuna hartzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzarekin batera, azken horretatik jasotako jarraibideak betez.

p) Hartzekoei eta emandako zerbitzuei buruzko ziurtagiriak ematea.

q) Nominak, aseguru sozialak, osasun laguntza eta langileen bestelako prestazio ekonomikoak egituratu eta kudeatzea. Langabeziako sorospena jasotzeko behar den dokumentazioa prestatzea. Hori guztia Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak emaniko jarraibideak zorrotz betez.

r) Langileen erregistro integratua, langileen espeditentea, plantilla organikoa eta langileen zerrenda egin, mantendu eta gaurkotzea

s) Daukan karguarengatik sartzen deneko zuzendaritzako edo partaidetzako organoetan aktiboki parte hartzea. Osasun Mentaleko zuzendariek esleitutako eginkizun guztiak bere gain hartzea, eta bereziki aginte-koadroaren lanketa koordinatzea.

15. artikulua. Kudeaketa Zerbitzuaren osaera.

1. Kudeaketa Zerbitzua honako atal eta unitateek integratzen dute.

- Langileria Atala.
- Administrazio Atala.
- Zerbitzu Orokorren Atala.

2. Atalek, uneoro, zerbitzuburuak esleitzen dizkien eginkizunak garatuko dituzte.

III. KAPITULUA

Kontsulta eta partaidetza organoak

16. artikulua. Laguntzako Batzar Teknikoa.

1. Laguntzako Batzar Teknikoa Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren organo kolegiatu tekniko eta aholku-emailea da.

2. Laguntzako Batzar Teknikoak hartutako erabakiak ez dira lotesleak izanen Osasun Mentaleko Zuzendaritzarentzat plantillaren aldaketa edo gastua handitzea dakarten antolamendu eta funtzionamendu gaietan.

3. Laguntzako Batzar Teknikoa honako kideek osatuko dute:

Berezko batzarkideak:

- Osasun Mentaleko zuzendaria, zeinak lehen-dakari gisa jardunen baitu.

- Plan Soziosanitarioaren koordinatzailea

- Arloko laguntza-zerbitzuetako buruak.

- Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko burua.

- Kudeaketa Zerbitzuko burua, zeinak idazkari lanak eginen dituen, hizpidearekin baina botorik gabe.

Hautaturiko batzarkideak:

- Osasun Mentaleko ekipo eta programen arlo-etako zuzendarien bi ordezkari.

- Osasun Mentaleko psikiatren bi ordezkari.

- Osasun Mentaleko psikologoek bi ordezkari.

- Osasun Mentaleko erizaintzako langileen bi ordezkari.

- Osasun Mentaleko gizarte laguntzaileen eta gizarte langileen ordezkari bat.

- Osasun Mentaleko titulurik gabeko langile sanitarioen bi ordezkari.

- Osasun Mentaleko zerbitzuen arloko entitate itunduen ordezkari bat.

- Osasun Mentaleko gainerako langileen ordezkari bat.

- Gaixotasun mentalek ukitutakoek elkarrekin ordezkari bat.

- Osasun Mentaleko okupazio-terapeuten ordezkari bat.

4. Berezko batzarkideek Laguntzako Batzar Teknikoko batzarkide izateari utziko diote Osasun Mentaleko Zuzendaritzan duten kargua uzten

dutenean. Hautatutakoak bi urtez behin berrituko dira.

17. artikulua. Laguntzako Batzar Teknikoko batzordeak.

Laguntzako Batzar Teknikoaren barruan, haren funtzionamendua hobea izan dadin, komenigarritzat jotzen diren edo legez beharrezkotzat jotzen diren batzordeak sortuko dira.

18. artikulua. Laguntzako Batzar Teknikoaren bilkurak.

Laguntzako Batzar Teknikoak gutxienez ere bi hilabetez behin eginen ditu bilkura arruntak. Bilera bereziak, berriz, batzarburuak erabakitzen duenean eginen ditu, edo batzarkideen heren betek eskatzen duenean.

19. artikulua. Laguntzako Batzar Teknikoaren erabakiak.

Laguntzako Batzar Teknikoaren erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira. Batzarra eratutzat jotzeko, berriz, ezinbestekoa izanen da gutxienez ere batzarkide gehienak presente egotea, horren barne direla batzarreko burua eta idazkaria edo haien ordezkioak.

20. artikulua. Laguntzako Batzar Teknikoaren eginkizunak.

Osasun Mentaleko Laguntzako Batzar Teknikoak aholkua eta informazioa emateko eginkizunak izanen ditu, honako arloetan:

- a) Zerbitzuen zorroa.
- b) Lanbideko jarduna ebaluatzeko eta zerbitzuen eta unitateen kalitatea ziurtatzeko irizpide teknikoak.
- c) Kalitate optimoaren adierazleak eta estandarrik, eskura dauden giza baliabideen eta baliabide materialen arabera.
- d) Prozedura eta dokumentazio klinikoak normalizatzeko irizpideak.
- e) Osasun erregioaren esparru osoan aplikatzekoak diren programak eta protokoloak.
- f) Urteko irakaskuntza-plana.
- g) Zentroen eta zerbitzuen funtzionamendu arau orokorrak.
- h) Zuzendaritzaren helburuak eta urteko txostena.
- i) Herritarrei arreta egiteko prozedura administratiboak.
- j) Ebaluaziorako eta pizgarrietarako sistemak.

k) Berrezarpeneko inbertsioen urteko banaketa.

l) Zentroen aurrekontu banakatuak.

Honakoak dira Laguntzako Batzar Teknikoaren eginkizunak:

a) Osasun Mentalaren laguntzaren arloko helburuak zehaztea.

b) Osasun Mentalaren Sareko zentroen antolamendua eta funtzionamendua onestea.

c) Laguntzaren kalitatea bermatzeko programarako ildo nagusiak ezartzea.

d) Zentroetako zerbitzuen zorroetan aldaketak proposatzea.

e) Eskatzen zaion gaietan, aholku teknikoa ematea ekipoen, programen eta erizaintzaren arloetako buruei.

f) Batzorde klinikoaren sorrera onestea, batzorde horien jardueren helburuak zehaztea eta funtzionamenduaren jarraipena egitea; halaber, batzorde horien eginkizunen balizko etetea erabakitzea.

g) Osasun jarduerarako arau teknikoak eta protokoloak prestatzea, horretarako bereziki prestatutako lantaldeen bitartez, eta proposamenen edukia dela-eta aldeko nahiz aurkako informazioa ematea.

h) Plan funtzionalari buruzko proposamenetan parte hartzea eta proposamenak egitea.

i) Osasun ekipamendurako Inbertsioen Planari buruzko nahitaezko txostena egitea.

j) Laguntzako adierazleen jarraipena ebaluatzea eta jarraipen hori egitea.

k) Osasunaren esparruan, irakaskuntza-jarduerak, prestakuntza jarraituko jarduerak eta ikerketa jarduerak sustatzeko programak garatzea.

l) Zentroetako laguntza-egiturak aldatzeko proposamenak egitea.

Laguntzako Batzar Teknikoaren irizpena ez da sekula ere loteslea izanen. Aurrekoa gorabehera, egindako irizpenetik aldentzen diren erabakiak Laguntzako Batzar Teknikoari formalki jakinarazi eta komunikatu beharko zaizkio.

21. artikulua. Laguntzako Batzar Teknikoko ordezkariak hautatzea.

Laguntzako Batzar Teknikoko sektoreetako ordezkariak martxoaren 21eko 78/1996 Foru Aginduaren bidez onetsitako eta Osasun kontseilariaren azaroaren 28ko 154/1997 foru Aginduaren

bidez aldatutako hauteskunde araei jarraituz hautatuko dira.

IV. KAPITULUA

Karguak eta burutzak betetzeko modua

22. artikulua. Osasun Mentaleko Zuzendaritzako zuzendaritza-organoak betetzea.

Osasun Mentaleko Zuzendaritzako zuzendaritza-organoak honela beteko dira:

1. Osasun Mentaleko zuzendaria Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak libreki izendatuko ditu eta kenduko ditu kargutik.

2. Arloko laguntzako zerbitzuetako buruak, Kudeaketa Zerbitzuko burua eta Laguntza Tekniko eta Erizaintzako Zerbitzuko burua Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak libreki izendatuko ditu eta kenduko ditu kargutik, Osasun Mentaleko zuzendariak proposatuta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako langileen artean. Betiere, arau bidez ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

3. Osasun Mentaleko ekipoetako zuzendariak, eguneko ospitaleetako zuzendariak, Errehabilitazio Klinikako zuzendaria, Haur eta Gazteen Eguneko Ospitaleko zuzendaria eta Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren sareko programetako arduradunak –haren esparru organikoan daudenak, beraz– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak izendatuko ditu, abenduaren 2ko 217/1994 Foru Dekretuan ezarritako prozedura betez.

4. Zerbitzuburuak eta atal mediko eta laguntzazkoen buruak, organikoki Nafarroako Ospitalearen eta Bideko Ama Birjina Ospitalearen menpe egonen direnak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzea eta lanpostuen betetzea arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera izendatuko dira eta kenduko dira kargutik.

5. Erizaintzako buruak, unitateetako buruak (gaur egun pabilioiko arduradunak direnak) eta laguntzaren arlokoak ez diren atal eta unitateetako buruak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzea eta lanpostuen betetzea arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera izendatuko dira eta kenduko dira kargutik.

6. Erizaintzaren Arloko buruak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak libreki izendatuko ditu eta kenduko ditu kargutik, Osasun Mentaleko zuzendariak proposa-

tuta, OLT-DUE kategoria duten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantillako langileen artean.

7. Izendapen libreko zuzendaritzako kargudunek guztizko dedikazioko araubidean eta lanerako guztizko eta erabateko eskuragarritasunez jardunen dute.

Lehenengo xedapen gehigarria. Oinarrizko unitate organikoetako arduradunen atribuzioak.

Oinarrizko unitate organiko bakoitzeko arduradunei honako atribuzioak dagozkie:

a) Unitateari atxikitako langileentzako baime-nak, lizentziak, oporrak eta joan-etorriak baimentzea, Kudeaketako zuzendariak esleituta dauzkan alderdietan izan ezin.

b) Lan eskubideen betetzea koordinatzea eta langileen laneko betebeharrak betetzea.

c) Langileekiko komunikazio prozesuak erraztea eta bultzatzea eta laneko giroa nahiz errendimendua eta produktibitatea sustatzea.

d) Kasuko unitateari atxikitako langileen jarduerak, lanak eta eginkizunak zuzendu eta koordinatzea, eta haiei lanpostua, txanda eta lanaldia esleitzea.

Bigarren xedapen gehigarria. Unitate organikoak eta programak sortzea eta kentzea.

Osasun Mentaleko Zuzendaritza hobeki garatzeko behar diren unitate organikoak eta programak sortzea eta kentzea Osasun kontseilariaren eginkizuna da, betiere Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak proposatuta.

Hirugarren xedapen gehigarria. Barne-akoplamentu esparru berria.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan alde zuzeneko barne egokitzapenaren sistema arautzeko prozedura berezia ezartzen duen Osasun kontseilariaren urriaren 28ko 129/2008 Foru Agindua aldatzen da. Esparru berria ezartzen da, foru lege honetako 3. artikuluan aipatutako Osasun Mentalaren Sareko baliabide eta tresnekin eta Osasun Mentaleko Zuzendaritzari atxikita geroan sor daitezkeen gainerakoekin. Une honetatik jada ez dago Anbulatorioen eta Ospitalez Kanpoko Laguntzaren Zuzendaritzan.

Laugarren xedapen gehigarria. Hizkuntza berdintzailea.

Foru lege honetako gaztelaniazko testuan, kargu-izenak edo lanpostuak aipatzeko genero gramatikal maskulinoko substantiboak erabiltzen

diren kasuetan –esate baterako, director edo jefe de servicio– ulertuko da ekonomia hutsez aipatzen direla horrela, eta modu orokorrean aipatu nahi direla postu horiek, gizonezkoek betetzen dituztenerako nahiz emakumeek betetzen dituztenerako, eragin juridiko berdinekin.

Bosgarren xedapen gehigarria. Ebaluazioa.

Foru lege honen aplikazioa eta bere menpeko zerbitzuen kalitatea ebaluatuko dira Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko 21/2005 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Arestiko lerrokadan aipatutako ebaluazioa Osasun Mentaleko Zentro batenarekin osatu beharko da urte bakoitzean, Osasun Mentaleko Zuzendaritzak ezarri beharreko ebaluazio-eredu bati jarraituz. Urte bakoitzean ebaluatu beharreko zentron kopurua handituz joanen da, hautatuko eredia finkatu ahala.

Halaber, Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren urteroko memorian atal bat sartu beharko da, laguntza klinikoko nahiz herritarrekiko harremaneko jardunbide onen multzoa zerrendatu eta deskribatuko dituen.

Xedapen iragankorra.

Laguntza Soziosanitarioari buruzko Planeko koordinatzailea Osasun Mentaleko Zuzendaritzari atxikiko zaio, harik eta Nafarroako Laguntza Soziosanitarioari buruzko Planetik heldutako egitura bat, baliabide berekikoa, gaurkotu, garatu eta hornitu arte; betiere, gaur egun esleiturik dituen eginkizunak, atribuzioak eta mendekotasun funtzionala ezertan ere galarazi gabe.

Egoera horrek dirauen bitartean, eta testuinguru berriaren barruan, ondokoa xedatzen da:

- Lehenetsun gisa ezartzea Ekintza Soziosanitarioari buruzko Planaren eguneratzea eta garapena.
- San Frantzisko Xabierkoa Zentro Psikogeriatrikoaren baliabide soziosanitarioen ardura ematea.
- Osasun Mentaleko Zuzendaritzako Zuzendaritza Batzordean batzordekide gisa parte hartzea.

Azken xedapenetan lehena. Indarrik gabe uzten dira:

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko estatutuak ezarri zituen uztailaren 3ko 45/2006

Foru Dekretuko 39. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letra eta 43. eta 44. artikulua.

2. San Frantzisko Xabierkoa Ospitale Psikiatrikoko gobernu-organoei buruzko maiatzaren 15eko 103/1985 Foru Dekretua.

3. Abuztuaren 17ko 246/1998 Foru Dekretua, San Frantzisko Xabierkoa Ospitale Psikiatrikoa Zentro Psikogeriatriko bihurtzeko araubidea ezarritzen duena.

Eta foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan bigarrena. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Adimen Osasuneko Zuzendariordetzari atxikitako eguneko zerbitzuak eta errehabilitazio zerbitzuak berregituratzen duen abuztuaren 17ko 247/1998 Foru Dekretua aldatzen da, ondoren azaltzen den bezala:

1. 2.3 artikulua. Psikiatria Atala Osasun Mentaleko Haur eta Gazteen Eguneko Ospitaleko Zuzendaritza izatera pasatuko da. Ordainsariak, gainerako zuzendariekin egiten den bezala, egokitzat jotzen den mailaren arabera egokitu dira.

2. 2.3 artikuluan Haur eta Gazteen Eguneko Ospitaleko zuzendariari buruz jasotako izendapenari, 3.4 artikuluan Errehabilitazioko Klinikako zuzendariari buruz jasotako izendapenari eta 4.3 artikuluan Eguneko Ospitaleko zuzendariari buruz jasotako izendapenari dagokienez, Osasun Sareari atxikitako A eta B mailetako langileek bete ahalko dituzte.

Azken xedapenetan hirugarrena. Ahalmena ematen zaio Osasun kontseilariari foru lege hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapenak emateko.

Azken xedapenetako laugarrena. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak foru lege hau betetzeko behar diren aurrekontu-aldaketak egiten ditu.

Azken xedapenetan bosgarrena. Osasun Mentaleko zuzendariak, ebazpen bidez, zuzendaritza karguak ordeztzeko araubidea ezarriko du, halako moduan non esleituta dauzkan eginkizunen eta atribuzioen jarraitasuna bermatuko baita.

Azken xedapenetako seigarrena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala deitutakoa erretira dezan jendaurreko prozeduratik eta alegazioak aurkezteko epetik.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Hondakinei buruzko Plan Integrala deitutakoa erretira dezan jendaurreko prozeduratik eta alegazioak aurkezteko epetik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, parlamentu-taldeko eledun diren aldetik, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan ekainean, hondakinen tratamenduan inplikaturako eragile administratiboek, sozialek eta politikoez ezer jakin gabe eta gisa horretako planak taxutzean parte-hartze soziala eta politikoa

beharrezkoa dela ezartzen duen Europako araudi- an ezarritako betebeharrak bete gabe, Nafarroako Gobernua Nafarroako Hondakinen Plan Integrala aurkeztu zuen, eta berehala jendaurrean paratu eta alegazioak egiteko epea abiarazi zuen.

Horren aurkako erantzun gogorraren ostean eta eztabaidarako nahiz parte-hartzerako prozesu bat irekitzeko eskakizunaren ostean –prozesu horretan Parlamentu honek onetsitako mozioaren erabaki proposamena sartu beharko litzateke–, Nafarroako Gobernua bere burua behartuta ikusi zuen gure erkidegoko hondakinen kudeaketan eta tratamenduan inplikaturako mankomunitateei eta gizarte-eragileei parte hartzeko bideak eskaintze- ra.

Prozesu hori irekitzeak, ordea, ez zuen ekarri Nafarroako Gobernua plana jendaurrean jartzeko prozesua etetea, baizik eta jendaurrean jartzeko epea eta alegazioak aurkezteko epea luzatzea.

Iragandako hilabeteetan, hondakinen kudeaketan zuzenean inplikaturako eta ukitutako eragileek agerian utzi dute plan hori berregin beharra dago- ela.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober- nua premiatzen du Nafarroako Hondakinen Plan Integrala erretira dezan jendaurreko prozeduratik eta alegazioak aurkezteko epetik.

Iruñean, 2010eko azaroaren 3an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Israelgo Estatuari zuzendutako boikot, zehapen eta desinbertsioen kanpainarekin bat egin dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Israelgo Estatuari zuzendutako boikot, zehapen eta desinbertsioen kanpainarekin bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

Nazioarteko erkidegoak uko egin zion Nazioarteko Justizia Gortearen 2004ko uztailaren 9ko epaia betetzeari –haren bidez, murraren legekontrakotasuna deklaratu zen, eta Israelek murrua eraitsi beharko lukeela eta biktimei kalte-ordaina eman beharko liekeela ezarri zen–, eta Durbango 2001eko Konferentzian bildutako Gobernuz Kanpoko Erakundeek adierazi zuten Israelek Palestinako herriari emandako tratua apartheid dela. Hori ikusita, 2005eko uztailaren 9an dei egin zen Israelen aurka boikota egitera, zehapenak ezartzera eta inbertsioak erretiratzera. Dei hura Palestinako gizarte zibileko 171 elkarteren babesarekin aurkeztu zen. Une honetan Palestinako 400 elkar-te baino gehiagok egin dute bat deiarekin.

Bertan ordezkaturik daude joera politiko guztiak, hainbat GKE (emakumeak, presoak, gazteak, nekazariak, soldadakoak, eta abar), dei honi Palestinako gizarte zibilaren ordezkariak erreala- ren taxua ematen diotenak. Are garrantzitsuagoa da bertan egotea Palestinako herriaren hiru osagaietako elkarteak: okupazioaren eta blokeoaren

mende dagoen sektorea (Zisjordania eta Gaza); 48ko eta Jerusalemgo biztanleria (Israelgo eta Jerusalemgo palestinarrak), eta errefuxiatuak (barnekoak nahiz kanpokoak). Horrenbestez, esan daiteke dei hau ez dela soilik Palestinako gizarte zibilaren adierazgarri, baizik eta Palestinako herriaren adierazgarri, haren hiru osagai sakabanatuak ordezkatu eta biltzen baititu.

BDZ mugimendua (boikota, desinbertsioak eta zehapenak) ezin da boikot-ekintza soilera murriztu. Dei honek eskatzen du Palestinako herriak pairatzen duen apartheidari Hegoafrikan apartheidari aurre egin zitzaion modu berean aurre egin dakio- la, elkartasun-mugimenduaren arreta Palestinako herriaren oinarritzko eskubideetan jarrita.

Deiak hiru errebindikazio egiten ditu: “Zigor- neurri baketsu horiei eutsi beharko litzaieke harik eta Israelek bere betebeharra bete eta aitortu arte palestinarrak eskubide besterenezina dutela auto-determinaziorako eta Israelek nazioarteko zuzen- bidearen manuak osorik errespetatu arte: 1) lurral- de arabiar guztiak okupatzeari eta kolonizatze- ari amaiera emanez, 2) Israelgo eta Jerusalemgo palestinarren oinarritzko eskubideak aitortuz eta eskubide zibil berberak emanez, eta 3) errefuxiatu palestinarrak beren etxeetara eta jabetzetara itzul- tzeko eskubidea errespetatuz, babestuz eta ahal- bidetuz, Nazio Batuen Erakundearen 194. ebazpe- nean agindu bezala.”

Nazioarteko erkidegoa ez da Israelgo estatua- ren aurkako gaitzespenean sartu, nazioarteko zuzenbidea aldiro urratuagatik. Aitzitik, Gazaren lege kanpoko blokeoa ahalbidetu du eta horren konplizea izan da, gaur egun munduko espeterik handiena dei litekeen horretan edukita hango biz- tanleak. Ez ditu Israelekiko harremanak baldintzatu, 2008ko abenduan eta 2009ko urtarrilean Gazako zerrenda bereizi gabe eraso ostean, non 1.400 hil- dako eragin baitzituen; gehienak zibilak eta bosten bat adingabeak. Hori guztia NBEko Giza Eskubide- en Batzordeak onetsitako Goldstone txostena gora- beheara, zeinak ebidentzia serioak aurkitu zituen Israelek Gazan gerra-krimenak egin izanari buruz eta Zisjordaniako lurralde okupatuetan politika kolo- nialari eusteari buruz, azpimarra jarrita Jerusalem Ekialdeko palestinarrak sistematikoki egoztean.

NBEko Giza Eskubideen Batzordeak txosten bat egin du berrikitan, zeinetan adierazten baita

iragan udaberrian Gazako blokeoa hausten saiatu zen flotilla humanitarioaren aurka Israelgo Armadak egindako eraso –bederatzi ekintzaile turkiar hil ziren han– basakeria-maila onartezinez eta indarkeria sinestezin eta premiagabez egin zela, segurtasunaren aitzakian justifikatu ezin dena. Gertakariak ikertu dituen taldearen ustez, eraso hura giza eskubideei buruzko legeen eta nazioarteko lege humanitarioaren urraketa larria izan zen.

NBEko misioak dioenez, XXI. mendean ezin onartuzkoa eta eramanezina da Gazak bizi duen egoera; horaz, aldeak eta nazioarteko erkidegoa premiatzen ditu konponbide bat aurkitzera, palestinarren eta israeldarren arteko gatazka amaitzeko.

Irailaren 2an bake-negoiazioen txanda berri bat abiarazi zuten, bertan behera gelditu dena kokalekuen eraikuntzan moratoria luzatzea erabaki izanaren ondorioz. Israelgo Gobernuak beste behin jartzen dizkio oztupoak bake prozesuari, eta beste ezein herrialderi jartzen ez dizkion baldintzak jarri nahi dizkio Palestinako herriari.

Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa betetzea exijitzeko une egokia da honako hau. BDZ mugitu

menduak, giza eskubideen eta eskubide zibilen oinarriko printzipioetan oinarritua, orain arteko esperantzarik sendoena gorpuzten du, eraginkortasunez eta indar moralez aurre egiteko Israelek egiten dituen ahaleginei, Palestinako herriaren oinarriko eskubideak albo batera utzi eta ahaztekoak. BDZrekiko babesa haziz joan da herrialde askotan, baita kolonialismoaren aurka dagoen Israelgo gizarte zibilean bertan ere, bakea lortzeko urrats eraginkorra izan daitekeelako esperantzan. Palestinako herriaren ahotsa, hamarkada askoan isilarazia, indarrez itzultzen ari da, eta berriz ere aintzat hartzen ari dira Palestinako herriaren nahiak.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bat egin dezan Israelgo Estatuari zuzendutako boikot, zehapen eta desinbertsioen kanpainarekin.

Iruñean, 2010eko azaroaren 3an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eusko Jaur-laritzarekin akordio bat egin dezan inkesta soziolinguistiko bat egiteko, 2006an egin zen bezala.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Eusko Jaur-laritzarekin akordio bat egin dezan inkesta soziolinguistiko bat egiteko, 2006an egin zen bezala.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikularen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bost urterik behin inkesta soziolinguistiko bat egiten da, jakite aldera zein den euskararen garapena Euskal Herri osoan. Hartara, administrazio-lurralde guztietan erabiltzen diren zenbait item baliatzen dira. Zazpi osagai ditu. Lehenengoak biztanleriaren ezaugarriak ezartzen ditu, bigarrenak biztanleriaren hizkuntza-gaitasuna, hirugarrenak hizkuntzaren transmisioa, ondoren datoz euskararen erabilera eta eremuz eremuko erabilera eta euskararen erabileraren sustapenari buruzko jarrerak, eta zazpigarrenez, inkestaren ondorioak.

Aldi bakoitzean galdera berberak egiten direnez gero, inkestaren emaitza egiaztagarria da, eta fideltasunez islatzen du euskararen bilakaera.

Kontuan hartuta Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Legeari jarraikiz bilakaera horren berri izan beharra dagoela, eta kontuan hartuta, batez ere, Nafarroako eta Euskadiko agintarien arteko hizkuntza alorreko lankidetzari dagokionez Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Karta berretsi zela Estrasburgon 1992ko azaroaren 5ean, eta kontuan hartuta orobat kartaren 14. artikuluan mugaz gaindiko harremani buruz ezarritakoaren aplikazioa, parlamentu-talde

honek ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erakundeen arteko harremanen esparruan Eusko Jurlaritzarekin akordio bat egin dezan, bost urterik behin euskararen lurralde osoan euskararen bilakaerari buruz egiten den inkesta soziolinguistikoa egite aldera, 2006an egin zen bezala.

Iruñean, 2010eko azaroaren 4an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2011rako Aurrekontuen Legerako behar diren aldaketak aurkez ditzan, zailtasun ekonomiko larriak dituzten udalei arreta egiteko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2011rako Aurrekontuen Legerako behar diren aldaketak aurkez ditzan, zailtasun ekonomiko larriak dituzten udalei arreta egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, parlamentu-taldeko eledun diren aldetik, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195.

artikuluaren eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Krisi ekonomikoa gogor ari da jotzen udalen diru-bilketarako ahalmena. Zenbait sarrera eta tasa bereki ia erabat jaustearen eraginez, finantzaketa-sistema arrotz eta urri batekin batera, toki entitate asko eta asko krisian daude, eta oinarrizko zerbitzu publikoak kantitatez nahiz kalitatez erortzea dakar.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan onetsitako erabakia betez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2011rako Aurrekontuen Legean egin beharreko presako aldaketak egin ditzan legea eztabaidatzen eta onesten denean, halako moduz non erabaki hartan eskatzen zen plana –zailtasun ekonomiko larriak dituzten udalei laguntzekoa– 2011rako aurrekontuekin batera onetsiko baita.

Iruñean, 2010eko azaroaren 4an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baititu Marokoko Gobernuak sahararren aurka egindako indarkeriazko ekintzak, eta sahararrei elkartasuna eta babesa adierazten baitizkie.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu Marokoko Gobernuak sahararren aurka egindako indarkeriazko ekintzak, eta sahararrei elkartasuna eta babesa adierazten dizkie.

2.- Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Aaiungo kanpaleku zibilen aurka Marokoko armadak eginiko indarkeriazko eraso militar oro, jadanik saharar zibilen heriotza eragiten ari baita.

3.- Nafarroako Parlamentuak Marokoko Gobernuaren jarrera salatzen du, Sahara Mendebaldeko lurralde okupatuetan sartzea eragotzi baitie Europako Parlamentuko, Eusko Legebiltzarreko nahiz Nafarroako Parlamentuko kideei, eta adierazten du beharrezkoa dela nazioarteko behatzaileei lurralde okupatuetako kanpalekuetan sartzen uztea.

4.- Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa berresten du, Saharako herria pairatzen ari den egoeraren salaketari eta haren eskubide zibilen eta politikoen aldarrikapenari dagokienez.

5.- Nafarroako Parlamentuak berresten du Saharako herriak autodeterminaziorako eskubidea duela, NBEak hitzartutako moduan, eta exijitzen du MINURSO-Mendebaldeko Saharan Erreferenduma egiteko Nazio Batuen Erakundearen Misioak ziurta dezala Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala betetzen dela Sahara Mendebaldean, Marokok orain dela 35 urte okupatutako lurraldean.

6.- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eta Europar Batasunari eskatzen die dagokien zeregina bete dezaten eta gatazka konpontzeko prozesua babes dezaten, NBEak onetsitako ebazpenetan xedatuarekin bat.”

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoko 2.2.1 neurriei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoko 2.2.1 neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak ahoz erantzun dezan Legebiltzarraren Osoko Bilkuran.

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoko 2.2.1 neurriei buruzko galdera:

1. Zertan da etxerik gabekoei lojamendu alternatiboa emateko zerbitzuak sustatzea, pasadizo-koentzako aterpeak eraiki edo berritzea lagunduz, Lizarran, Tuteran eta Altsasan?

Iruñean, 2010eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak Tuterako Katedrala dela-eta egindakoei buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak Tuterako Katedrala dela-eta egindakoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 191. artikuluan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak Tuterako Katedrala dela-eta egindakoari buruzkoa, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin.

Nafarroako Gobernuak 2000n sortu zuen Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa, Nafarroako monumentu-erakinen kontserbazioa eta zaharberritzea arintasunez eta eraginkortasunez sustatzeko eta kudeatzeko. Hauexek dira helburu nagusiak:

– Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen oinarrian dauden printzipioekin bat, Nafarroako kultur ondare deklaratuak ondasunak babestu, kontserbatu, berreskuratu, ugaritu, ikertu, zabaldu eta hurrengo belaunaldien esku jartzea.

– Baliabide ekonomikoak lortzea edozein pertsonarengandik, pertsona fisikoa eta/edo juridikoa izan, publikoa eta/edo pribatua, fundazioaren berezko xedeak gauzatzeko beharrezkoak direnak, dirulaguntzen edo edozein izaeratako laguntzen bitartez.

– Fundazioaren helburuak herritarren artean zabaltzea, Nafarroako ondare historikoa hobeki ezagutze aldera.

– Fundazioaren helburuetan lagunduko duten zabalkunde, ikerketa eta prestakuntza programak sustatu eta prestatzea.

– Adierazitako helburuak lortzen laguntzen duen beste edozein jardura.

Hamarkada honetako jarduketarik garrantzitsuenetako bat izan da Tuterako katedralaren zaharberritze integrala. Jarduketa horri dagokionez azken asteotan jakin izan dugunez, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren epai batek fundazioa behartu du Tuterako Udalari 45.917 euro itzultzera, jasotako dokumentazioa osatugabea zelako, besteak beste; beste gauza askoren artean falta baitzen gastuen zati bat ordaindu izana frogatzea, bai eta esleipena zuzenean egin zelako ere, alde zurretik hiru eskaintza eskatu gabe.

Tuterako alkatearen jokabideaz gain –hori udalaldeek epaitu beharko dute–, agerian geratu da fundazioaren zenbait erabilerak frogatzen dutela administrazio-prozedurak interpretatzeko modu bitxia.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

• Patronatuaren lehendakaria Kultura eta Turismo kontseilaria izaki, zer iritzi dio Nafarroako Gobernuak fundazioaren jokabide honi? Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren epaia beteko al du fundazioak?

Iruñean, 2010eko azaroaren 1ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Kulturaren eta Turismoaren Behatokiak 2010. urtean zehar eginiko lanari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Kulturaren eta Turismoaren Behatokiak 2010. urtean zehar eginiko lanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 191. artikuluan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Kulturaren Behatokiak bere lehen urtean zehar eginiko lanari buruzkoa, kasuko batzordean ahoz erantzun dadin.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak 2010ean egindako lehen agerraldietako batean, PSN-PSOEn parlamentu-taldearen galderei erantzunez, Nafarroako Kulturaren Behatokia abian jarriko zela berretsi zuen. Ekimen

hori legegintzaldi honetarako jarduketa planean jasota zegoen. Urtea bukatzeaz denez, ondokoa jakin nahi dut:

Ahozko galderaren testua

• Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak nola kalifikatzen du Nafarroako Kulturaren Behatokiak 2010. urtean zehar eginiko lana? Zer giza baliabide eta zer baliabide material dauzka behatokiak? Zein izan dira behatokiaren jarduketa garrantzitsuenak?

Iruñean, 2010eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, azkeneko hiru urteetan oinarrizko errenta jaso duten etxegabeen kopuruari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, azkeneko hiru urteetan oinarrizko errenta jaso duten etxegabeen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Etxegabeei edo pasadizoko pertsoneri buruzko galdera.

Etterik gabeko zenbat pertsonak jasotzen dute oinarrizko errenta? Azken hiru urteotako datuak jaso nahi ditugu.

Iruñean, 2010eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Leitzako Udalarri Erleta eskolan igogailu bat jartzeko dirulaguntza ukatzeko izandako arrazoiei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Leitzako Udalarri Erleta eskolan igogailu bat jartzeko dirulaguntza ukatzeko izandako arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Aitor Etxarri Pellejerek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Azken urte hauetan Leitzako udalak Nafarroako Gobernuari Erleta eskolan igogailu bat jarri ahal izateko dirulaguntza eskatu dio. Badira hiruzpalau urte udala dirulaguntza eskatzen ari dela.

• Zein dira Nafarroako Gobernuaren arrazoiak azken hiruzpalau urte hauetan eta 2010. urtean Leitzako udalarri Erleta eskolan igogailua jartzeko dirulaguntza ez onartzeako?

Iruñean, 2010ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Foruzaingoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Foruzaingoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Polizieiei buruzko Lege onetsi berriaren aurka poliziek egindako mobilizazioen ostean, ondokoa jakin nahi da:

1. Zenbat pertsona kendu dira ardura-karguetatik Foruzaingoan?

2. Nortzuk dira kargutik kendutako pertsona horiek? Zer kargu zuten?

3. Zein dira pertsona horiek kargutik kentzeko arrazoiak?

Iruñean, 2010eko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, NA-411 eta NA-4100 errepideetako bidegurutzeko seinale horizontalei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, NA-411 eta NA-4100 errepideetako bidegurutzeko seinale horizontalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Aitor Etxarri Pellejerok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaien.

NA-411 eta NA-4100 errepidea elkartzen diren bidegurutzean, lurrian margotuta dauden seinaleak eta seinale bertikalak ez datoz bat. Bidegurutze horretan, Ostitzetik Lizaso alderantz doazen autoek Gelbentzutik Lizasorantz doazenei utzi behar diete lehentasuna, nahiz eta Ostitzetik Lizasorantz doazen autoak NA-411 errepidean jarraitu edo ibili. Gelbentzutik Lizasorantz doazenek, hau da, NA-4100 errepidetik NA-411 errepiderantz doazenek, NA-411 errepidean bertan doazenek baino lehentasun handiagoa dute lurreko seinale horizontalei jarraitzen badiegu.

Hau horrela izanik, parlamentari honek jakin nahi du:

1. Nafarroako Gobernuak uste al du bidegurutze horretako seinale horizontalek bere horretan jarraitu behar dutela?

2. Hau horrela ez bada, noiz zuzenduko du Nafarroako Gobernuak bidegurutze horretako seinalizazioa?

Iruñean, 2010eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, larrialdietako probak egin ondoren gaixoak ospitaleko gelara eramateko prozeduran gertatzen diren atzerapenei buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, larrialdietako probak egin ondoren gaixoak ospitaleko gelara eramateko prozeduran gertatzen diren atzerapenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzuteko.

Jakin dugunez, gaixotasun larri bat eduki eta berriz gaixotutako pertsona bat, Nafarroako Ospitalera eraman behar izan zena, egin beharreko probak egin ondoren, bertan ospitaleratzea erabaki zen, baina, gure ustez, denbora gehiegi itxaron behar izan zuen horretarako.

Galdera hau egiten dut, hain zuzen ere, gaixoa ospitaleratzeko erabakia hartu zenetik solairu batera igo bitarte iragandako denborarengatik. Egun berean, ospitaleratu beharreko bi gaixok

zazpi ordu itxaron behar izan zuten batez beste, nahiz eta hutsik egon ohe biko gela bat.

Ez dugu ulertzen zer arrazoi dagoen solairura igotzeko tramitea azkarrago ez egiteko, baldin eta oheak libre badaude, ospitaleko altak eman arte itxaroten egon gabe. Hori dela-eta, ondoko galderak aurkeztu ditugu:

- Zer prozedura baliatzen da gaixoa ospitaleratzea erabaki eta oheak libre daudenean?

- Ospitaleratzea azkartze aldera eta gaixoei larrialdietan behar baino denbora gehiago egonaztea ekidite aldera, ba al dago solairuko ospitaleratzea egiteko zirkuitua eta burokrazia hobetzerik?

Iruñean, 2010eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2010eko urriaren 22an onetsitako erabakiak.

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatua betetzeko agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2010eko urriaren 22an onetsitako erabakiak.

Iruñean, 2010eko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2010eko urriaren 22an onetsitako erabakiak.

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz Osoko Bilkurak 2010eko urriaren 22an onetsitako erabakiak

Lehenengoa. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du apustu tinkoa egin dezan sistema publikoaren eta haren garapenaren alde, haren beharrezkoen buruzko azterketa zorrotz bati jarraikiz.

Bigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakumeari laguntzeko zentroi hezkuntza- nahiz prebentzio-eginkizunak itzul diezazkien, haien sorrerako espirituairekin bat, eta aurrekontuetan haiendako behar adina diru jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak premiatzen du Nafarroan osasun publikoak egiaz eman ditzan haurdunaldia nahita eteteari buruzko legeak aurreikusitako kasuetan emakume nafarrei berez dagozkien zerbitzuak.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du presta ditzan buruko osasunari buruzko Plan Integrala eta buruko gaixoaren eskubideen gutun bat, bai eta haiez arduratuko diren zerbitzuena ere, hots, zerbi-

tzuen gutun bat, erreforma psikiatrikoaren aplikazio gisa eta kontuan harturik herritarrek eskubidea dutela gizarte-zerbitzuak eta erkidego-laguntza izateko, arlo psikiatrikoko zerbitzuen hedapen gisa. Azken batean, gure erkidegoko buruko osasunari buruzko estrategia definitzea, eta horretarako beharrezkoa da Gizarte- eta Osasun-Plana berrikustea, behar-beharrezkoa dena buruko osasunari buruzko Plan Integralari eta mendekotasunarekin zerikusia duen orori ekiteko.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adina baliabide ekonomiko ziurta dezan, Euskarabideak euskarara sustatzeko eta bultzatzeko duen lana egin ahal izate aldera, institutua sortzean izandako helburuetako bat eta Euskarari buruzko Legeak agintzen duena behar bezala bete daitezten.

Bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bi hilabeteko epean eta legegintzaldi honetan izapidetu ahal izate aldera Parlamentu honek onetsitakoa bete dezan eta Nafarroako Mugikortasun Integralari buruzko Foru Lege proiektua igor dezan.

Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan objektibo eta konparatibo bat aurkez dezan, jakite aldera ea babes ofizialeko etxebizitzaren moduluaren prezioa bat datorren egungo merkatuarekin eta behar bezala kuantifikatuta dagoen.

Zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak mugikortasun iraungarriaren aldeko apustua egiten du, eta, horrenbestez, garraio publikoa bultzatu behar dela adierazten du. Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du garraio publikoaren aldeko apustu hori eraginkor egiteko behar diren jarduketara, baliabide eta konpromiso guztiak har ditzan, garraio pribatuari aurre egin ahal izateko eta gizartearen mugikortasuna iraungarriagoa bihurtzeko.

Zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irratien arazo honi

konponbidea eman diezaion, irрати-eskaintza handituz eta lizentzia gehiago emakidatzeko aukera emanez, hartara konponduko baitira bere garaian Radio Universidad de Navarra-ri eta Medios de Comunicación 21-ri lizentzia ematean eginiko irregularitasunak.

Bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ziurta dezan euskarak presentzia duina izatea LTDren bidez hartzen diren telebista-kateetan eta bete ditzan Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakiak, zeinen bidez Nafarroako Gobernua premiatu baita ETB LTDren bidez hartu ahal izateko negoziazioak, Eusko Jaurlaritzarekikoak, erraz ditzan, eta protokoloan ETB 3 eta ETB Sat sar ditzan.

Hamargarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmenak egin ditzan Nafarroako eremu eta eskualdeetan jarduten diren enpresaburuen elkarteekin, nor bere eskualdeko enpresa txiki eta ertainen artean susta eta jakinaraz ditzan kasu bakoitzari egoki dakizkiokeen I+G+Bko programak nahiz kasu bakoitzean I+G+Bko prozesuan alde aurreko azterketa banakatuak egiteko laguntza publikoak, harik eta ezarri arte.

Hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du susta dezan Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroak lankidetzan hitzarmenak egitea, bere jarduna deszentralizatze eta bere zerbitzuak baliatzea errazte aldera, mankomunitateekin, udalekin, toki garapeneko agentziekin nahiz bestelako entitate publikoekin, zertarako eta Nafarroako eremu guztietan eduki dadin ekintzailtzaren garapenerako funtsezko egitura hori baliatzeko modu hobea.

Hamabigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nafarren eskubideak eta betebeharrak jasotzen dituen foru lege proiektuan jaso ditzan etorkinen eskubideak eta betebeharrak, eskuragarriagoa izan dakien horien ezagutza eta, hartara, integrazio prozesua eta kohesio soziala hobetu daitezten.

Hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urte anitzeko finantzaketa nahikoa eman diezaion Nafarroako Unibertsitate Publikoari, bere irakaskuntza- eta ikerketa-lana egiten jarraitu ahal izan dezan eta ikasketak Europako Unibertsitate Eremura egokitu ditzan, Medikuntza nahiz Nafarroako Unibertsitate Publikoak berak egoki irizitako beste titulazio batzuk eskainiz.

Hamalagarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du deklaratu dezan beharrezkoa eta presakoa dela Nafarroako

Gobernuak egiten dituen jarduketak lehentasunez bideratuta egotea gure erkidegoko landa eremu askotan gertatzen diren desberdintasunak eta lurralde-desorekak konpontzeko jarduketetara.

Hamabosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sarbide Plan bat presta dezan nekazari eta abeltzain gazteen lehen sektorerako.

Hamaseigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Kiotoko Protokoloa betetzeko Plan Zuzendaria egin dezan.

Hamazazpigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hamabost eguneko epean izenda dezan Nafarroan Arte Garaikidea Sustatu eta Garatzeko Plan Orokorreko kudeatzailea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan Arte Garaikidea Sustatu eta Garatzeko Plan Orokorra ezar dezan, Uharteko Arte Garaikidearen Zentroan gazte sortzaileentzako arte-esperimentazio eta -sorkuntzako zentro bat sortuz, arte-joera berri guztietan probatu, sortu eta esperimentatu ahal izateko, baita teknologia digitaletatik abiatuta ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sortzaile berrientzako arte-esperimentazio eta -sorkuntzako lehen sariak abian jar ditzan.

Hemezortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enplegu-kalitatearen hobekuntza susta dezan gizarte zerbitzuaren sektorean, bereziki bizitokien esparruan.

Hemeretzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen abiaraz ditzan gizarte-bazterkeriaren eta pobrezia-aren aurkako neurri integralak.

Hogeigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ziurta dezan politika publiko guztietan sartuko direla generoko ikuspegia eta emakumeena; hartara, kulturaren, kirolaren, historiaren, zientziaren, gizartearen, ekonomia-aren, politikaren... esparruetan emakumeek duten zeregina aitortzea sustatuko da, politika publikoak taxutzean eta ebaluatzean emakumeen taldeek eta elkarteek parte har dezaten sustatuko da, eta eskola esparruan gizartearen ordezkaritza erreala errespetatuko da, hezkidetzaren ikuspuntutik eta sexu-segregaziorik gabe.

Hogeita batgarrena. Nafarroako Parlamentuak uste du presako plan bat abiarazi behar dela, zailtasun ekonomiko larriak dituzten udalei laguntzeko.

Hogeita bigarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Udalei buruzko Foru Lege berri bat eztabaidatu eta onetsi beharra dagoela, etorkizuneko ikusmoldez ekiteko Nafarroako toki sektorearen berrantolamenduari. Foru lege berri horrek etorkizuneko ikusmoldez eman behar die aldeko erantzuna eskumen-mailari, finantzaketa egonkor eta askiko sistemari eta toki mapa berriaren berrantolamenduari.

Hogeita hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du, bere esku dagoen neurrian, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du legegintzaldi hau bukatu aurretik egin beharreko urratsak egin ditzan, gure udaletako kontu-hartzaille eta idazkari gehienek bizi duten behin-behinekotasun eta bitartekotasun egoera modu asegarrian konpontzeko.

Hogeita laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuari exijitzen dio lehenbailehen has dezan trafiko arloko eskumen osoak eskualdatzeko prozesua.

Hogeita bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio hiru hilabeteko epean Funtzio Publikoaren Estatutuari buruzko Foru Lege proiektua igor dezan Parlamentura.

Hogeita seigarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du egungo tributu-sistema berrikusi behar dela, eta horretarako prest azaltzen da, gehikortasunean eta aberastasunaren birbanaketan sakonduz; berrikuspen horren bidez ziurtatuko da Nafarroak aurrerapauso tinkoak ematea ongizatearen estatu bilakatzeko, zeinaren zutabe nagusi izanen baitira zerbitzu publiko aurreratuak eta kalitatezkoak.

Hogeita zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak gure autogobernua aldezteko eta garatzeko konpromisoa adierazten du, eta autogobernua sakontzeko apustu sendoa egiten du, sinetsita baitago funtsezko tresna dela Nafarroaren garapen sozial, ekonomiko eta demokratikorako.

Hogeita zortzigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak autogobernuarekiko bere konpromisoa azaltzen du, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du balioan jar dezan Foru Hobetzea, zeina orain dela gutxi aldatu baita, autogobernurako tresnarik onena den aldetik, eta orobat premiatzen du Foru Hobetzearen potentzialtasun guztiak gara ditzan, gure erkidegoak aurrera egiten jarraitze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuarekiko elkarrizketa, lankidetzeta eta elkar aditzeko bideei euts diezaien, Nafarroa hobeto eta gehiago egiteko modurik onena hori den aldetik.

Hogeita bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Zuzenbide Estatuaren tresna guztiekin legezkotasuna aplikatzen jarrai dezan, ETari aurre egiteko.

– Zigorgabetasun-guneak edo indarkeria legitimatuzeko saioak desagerrarazteko eta baztertzeko politikari euts diezaion.

– Terrorismoaren biktimen oroimenari, justiziari eta duintasunari babes etengabea eman diezaien eta haien aitortza egin dezan.

– Estatuko segurtasun indar eta kidego guztiekin bere eguneroko lanean bakearen eta askatasunaren alde lankidetzan aritzera eta lan hori aitortzera.

– Espainiako Gobernuak Barne Ministerioaren politika antiterroristari babesera erakustera.

Hogeita hamargarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroak zergen arloan duen eskumen-esparruan, egungo zerga-sistema berrikus dezan, halako moduz non errenta handiak dituztenen zerga-ekarpenak handituko diren; halatan, areago lagunduko diete ongizate estatuaren sendotasunari, funtsezko zerbitzu publikoak ematen jarraitu ahal izateari eta gure produkzio-sistemaren lehiakortasuna areagotuko duten politikak egiteari, horrela lortu ahaliko baita aberastasuna modu bidezkoagoan banatzea eta aukera-berdintasuna areagotzea, eta guztien Nafarroako Foru Komunitatearen etorkizuna modernitatearen ikuspuntutik irabaztea.

Hogeita hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahalginak eta bitartekoak hobetu eta biderka ditzan Zerga Iruzuraren aurkako Plana garatze aldera, iruzurrezko eragiketak berreskuratu ahal izateko eta diru publikorako dagokiona berreskuratzeko, eta horrez gain herritarrei ikusarazteko Foru Komunitatean fiskalitateak justizia soziala esan nahi duela.

Hogeita hamabigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren baliabideen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzera bideratutako neurriak har ditzan:

1. Osasun arloko teknologien ebaluazioa indartzea

a. teknologien ebaluazioa medikamentu berrietatik harantzago egin dadin, hau da, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu-zorro osoari eragin diezaion.

b. irizpide klinikoetan (eraginkortasuna, segurtasuna) eta irizpide ekonomikoetan (kostua, eraginkortasuna) oinarritzea.

c. osasun arloko teknologien ebaluazioaren emaitzak lotesleak izatea.

d. zerbitzuen oinarritzko zorroa zehazteko eta lehentasunak ezartzeko irizpideak ezartzea.

2. Profesionalen errendimendua eta produktibitatea hobetzea

a. lan egindako denboraren malgutasun-tresnak sortzea, egunean sortzen diren jardun-patroietara doitze aldera laguntza-ekipoak.

b. profesionalen mugikortasuna erraztea zentro bereko unitateen artean, malgutasunean irabazte aldera.

c. Aldi baterako ezintasun bajak eta absentziak modu eraginkorragoan kontrolatzeko sistemak ezartzea.

d. jarduerari lotutako ordainsari-sistemak orokortzea.

e. osasun-lanbide guztien trebetasunak eta eginkizunak ahalik eta gehien aprobetxatzea laguntza-prozesuan.

f. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiei etekina ateratzea, laguntza-prozesuaren produktibitatea hobetze aldera; laguntza-prozesuak berriro taxutzea.

3. Medikamentuen kontsumoari buruzko neurriak

a. medikamentuek urtero eragindako kostu osoari buruzko zuzeneko informazioa ematea gaixoari, hark kontzientzia har dezan, eta sistemaren iraungarritasunean parte har dezan.

b. osasun-zerbitzuen esparru guztietan informatzea tratamenduaren kostuari buruz, eta, modu sistematikoan, tratamendua medikuak agindu bezala ez jarraitzearen kostuari buruz.

c. kontsumo efizientea sustatzea, alferreko erabilera gutxituz, osasunari ezer ekartzen ez diona eta kostua eragiten duena.

d. iruzurraren gainerako kontrola hobetzea, farmazia-gastuaren baterako ordainketan.

4. Gaixo kronikoentzako laguntza-eredua garatzea

5. Ospitaleratzearen ordezkoko gune sozio-sanitario bat garatzea

6. Osasuna sustatzean eta prebenitzean tinko esku hartzea: Gutxienez ere ondoko hiru baldintza

hauek betetzen dituzten jarrerren, azturen, praktiken, eta abarren ikerketan, identifikazioan eta sustapen aktiboan sakontzea:

a. patologia prebalenteetara, hazteko joera dutenetara eta osasun-gastuan eragin handia dutenetara bideratzea (esate baterako, diabetesa, obesitatea, iktusa, gaixotasun koronarioa);

b. garapen-kostu txikikoak eta aplikazio-esparru zabalekoak (biztanleria osoa) izatea;

c. gisa horretako patologiak prebenitzeko eta tratatzeko eraginkorrak direlako ebidentzia edukitzea, neurri garestiagoean eragin berdinarekin gutxienez ere.

7. Gaixoaren segurtasun-estrategiak bultzatzea

a. ospitale-sarean oro har aplikatzea "ospitaleen artatutako gaixoengan eragin kaltegarriak prebenitze aldera gobernu-eragileek gomendatutako 22 jardunbide seguru eta sinpleak".

b. modu zehatz, gidatu eta sistematikoan sustatzea "jardunbide seguru eta sinpleen" identifikazioa, definizioa, egokitzapena eta ezarpena, medikamentuekin, infekzio nosokomialekin eta prozedura kirurgikoekin lotutako ezbeharrak prebenitzeari berariaz zuzenduak.

c. gaixoaren segurtasunari buruzko plan estrategikoak taxutzea, osasun planen esparruan sartutako direnak.

Hogeita hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 1eko 14/2010 Foru Legea bete dezan.

Hogeita hamalaugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berrikuntzaren esparruan indarra hartzen ari diren sektoreekin lotutako prestakuntza-ziklo berriak ezar ditzan gure foru komunitatean, esate baterako Moderna Planean aipatzen direnak, ondokoak helburu: herritarren enplegarritasuna hobetzea, berrikuntzaren esparruan indarra hartzen ari diren sektoreetan arreta jarritako eredu ekonomikoa aldatzearen lan egitea eta ikerketa-zentroekin, unibertsitatearekin eta enprekin ahaleginak bateratzea.

Hogeita hamabosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskola-adina izan eta eskolatu gabe dauden ikasleentzako programak mantendu eta indartu ditzan, lan aktiboa egite aldera eskola-abandouaren aurka, eta herritar guztiek derrigorrezko prestakuntza edo lanbide-kualifikazioa lortzea susta dezan.

Hogeita hamaseigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foru Komunitatean kirol-ikasketen maila ertaineko eta goi mailako prestakuntza-zikloak ezar ditzan.

Hogeita hamazazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du goi mailako prestakuntza-zikloetako eta unibertsitateko ikasleen mugikortasuna erraztera bideratutako laguntzak areagotu ditzan.

Hogeita hemezortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko Foru Legearen edukia osorik eta berehala gara dezan, ezgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasuna ziurtatze aldera, irisgarritasun unibertsalari eta orentzako diseinuari dagokienez.

Hogeita hemeretzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta enpresen arteko ezagutza-tresnak berrikus ditzan, bai eta harreman horrek oinarri dituen arau-esparruak ere, errazte aldera bi esparru horien arteko lankidetzak ahalbidetzea Nafarroako enpresa gehiagok proiektu ukigarri, produktu, prozesu edo zerbitzu bihurtzea gure unibertsitate publikoan sortzen den jakintza, zeinetatik sortuko baita. gure Foru Komunitatearen hazkuntza ekonomikoa ahalbidetuko duen balio ekonomikoa.

Berrogeigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikerketaren arloan talentudunak atzemateko plan estrategiko bat presta dezan, Moderna Planean gure etorkizuneko garapen ereduko oinarri gisa funtsezkotzat jotako esparruetan.

Berrogeita batgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahaleginak egiten jarrai dezan, datorren urtean banda zabala Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan errealitate bat izan dadin lortzeko, ulertuta teknologietarako sarbidea izatea oinarritzko urrats bat dela herritar guztientzako aukeren berdintasun efektiboa erdiesteko.

Berrogeita bigarrena. Nafarroako Parlamentuak, abaguneaz jabetuta, Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko udalako oinarritzko gizarte zerbitzuak arlo finantzarioan eta bitartekoen arloan indartu ditzan, arrisku-ko eta gizarte-bazterkeriako egoeretan dauden herritarrentzako hurbileko prebentzio- eta laguntza-lana egiten baitute.

Berrogeita hirugarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du belaunaldien arteko programak garatu eta praktikan jar ditzan, adin desberdinetako pertsonak elkarrekin harremanetan jartzeko lotura adierazgarriak eraikitzekeo balioko dutenak eta adindunei balioko dietenak belaunaldi berriei kultura eta tradizioak transmititzeko, eta, aldi berean, adindunek beren burua hobeki hauteman dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du belaunaldien arteko programa horietan gazteak inplika ditzan, zahartzarora hobeiki ezagut eta prezia dezaten, eta, aldi berean, harekiko beldur gutxiago izan dezaten. Horretaz gainera, bereaz besteko adin tarte bateko pertsonetikiko belaunaldi arteko harremanen onura izanen dute, eta pertsona horiek gida, aholkua, jakintza, babesa eta adiskidetasuna eman ahalko diete.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zahartzarora normalizatzeko ekintzak susta ditzan, eta zaharrak gainerako belaunaldiekin integra ditzan eta sendotu ditzan, batetik, haien aberastasun soziala (gaitasunak, trebetasunak, ezagupenak eta balioak) eta, bestetik, erabilgarritasun pertsonaleko, belaunaldien arteko, familiarreko eta sozialeko sentimenduak.

Berrogeita laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure foru komunitatean administrazio-organo berri bat azter eta ezar dezan, alderdientzat loteslea izanen dena, mendekotasun-gradu eta -mailaren aintzatespenari buruzko desadostasunek eragindako erreklamazioak ebatziko dituen.

Berrogeita bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekiko hitzarmen bat bultzatzea dezan, estazioen sare bat sustatzeko erregai- eta hidrogeno-bateria darabilten ibilgailu hibridoek hura kargatu ahal izateko.

Berrogeita seigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du elkarrentzat interesa duten kultur programetan Espainiako Gobernuarekiko lankidetzaren areago dezan; esate baterako, Kulturarako % 1 Programan edo Landa Garapen Iraungarriko Programan.

Berrogeita zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Iruñeko Udalarekin batera behar diren izapideak has ditzan Iruñeko harresien multzoa "Gizateriaren Ondare" deklara dadin.

Berrogeita zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurri fiskal berriak azter ditzan enpresen eta

partikularren mezenasgo-eginkizuna areagotzeko, aurrekontuetan xede horretarako kontusailetan, pairatzen ari garen krisialdi ekonomikoaren ondorioz, gertatu den beherakada nabarmena arintze aldera.

Berrogeita bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du NUPekin batera finantziatorako urte anitzeko eredu bat zehatz dezan, Nafarroako unibertsitate publiko horren egonkortasun eta bideragarritasun finantzarioa ziurtatzeko.

Berrogeita hamargarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurrekontuekin batera doazen tributu-neurriei buruzko heldu den urteko foru legean behar diren arau-aldaketak sar ditzan, herritarrek PFEZaren aitortuenean “%0,7ko Funtsa” laukitxoaren bidez hornituriko kontusailak, kasuko urtean banatu ezin direnak, hurrengo urteetako aurrekontuetan kontsignazio berari gehi dakizkion, hartara ez baita urratuko herritarren borondatea, PFEZaren laukitxoaren bidez adierazia, eta Legebiltzar honek onetsitako legeko printzipioekin bat kudeatu ahal-ko baita.

Berrogeita hamaiagarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Valtierako ureztalurren proiektua bete dezan erabakitako aldi eta epeetan, hain zuzen ere ureztalurrak direla-eta hitzartutako proiektuak eginez, halako moduz non proiektua ezarritako epean amaituko baita.

Berrogeita hamabigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, krisi ekonomiko eta aurrekontukoaren norainokoa ikusita, zeina ederki ikusten baita Kultura eta Turismo Departamentuaren 2010eko aurrekontu indardunetan, gerora dezan lehentasun txikieneko obren hasiera; besteak beste, Entzierroaren eta Sanferminen Zentro Tematikoarena, bai eta haren abiaraztea ere, erabaki horiek herritarrek babestuko baitituzte.

Berrogeita hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du legebiltzar honetako erregelamenduak gobernua-jarduna kontrolatzeko parlamentu-lanari buruz ezarritako betekizunak bete ditzan, foru legearen mailako araua baita.

Berrogeita hamalagarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskumen-eskualdaketa prozesua burutzera, LORAFNAn oinarriturik; horretarako, Transferentzien Batzordeak egutegi bat onetsi behar du, geroko utzitako eskualdaketa guztiak barnean hartuko dituen, prozesua era horretan ahalik eta eperik laburrenean amaitzeko.

Berrogeita hamabosgarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du presakoa dela ETA banda terrorista desagertzea, armak ematea eta Batasunak indarkeria gaitzetsi eta arau demokrati-koak onartzea, gizartea bakean eta askatasunean bizi ahal dadin.

Berrogeita hamaseigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren itunak eginez behar diren erreformak planteatzen Nafarroako Foru Komunitatean, funtzio publikoaren arloan, toki administrazioaren arloan eta osasunaren arloan, besteak beste.

Berrogeita hamazazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitate osoaren lurralde orekaren aldeko apustua egin dezan, Nafarroako lurralde garapenerako plan bat taxutuz eta Pirinioa garatzeko beste plan bat eginez.

Berrogeita hemezortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2011. urterako Aurrekontu Orokorretan urte anitzeko finantzaketa-plan bat sar dezan, unibertsitate horrek aurre egin beharreko erronkak garatu ahal izateko, askitasun finantzarioaren eta egonkortasunaren baldintzetan, bide horretatik 2009. eta 2010. urteetako zalantzak eta segurtasun ezak argituz eta ezeztatuz.

Berrogeita hemeretzigarrena. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta bermea ematen dio landa-ingurune osoari, jasaten ari den egoeraren aurrean; horregatik, Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adinako inbertsioak, lehen sektorearen beharrezko araberakoak, bidera ditzan, Nafarroan nekazaritza-elikagaien industriari bultzada eraginkorra emateko, eta landa-ingurunea babesteko egoki diren neurriak har ditzan, multinazional handiek merkatuan esku hartzearen ondorioz ingurune hark jasaten duen presioari erantzuteko; zehazki, marjina komertzialei dagokienez.

Hirurogeigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari exijitzeko berehalako bete ditzan Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko Legearen arabera dagozkion ehuneko 33ko finantziario-betebeharrak.

Hirurogeita batgarrena. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du hizkuntza politika Nafarroako Foru Komunitatearen ondare kultural bat dela, eta horren aldeko apustua egiten du, normaltasuna abiapuntu hartuta, hura sektarismoaren eta alderdikeriaren ikuspegitik erabili gabe.

Hirurogeita bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gazte-entzako kirol bono bat ezar dezan, Nafarroako Foru Komunitatean aisia eta kirola sustatzeko.

Hirurogeita hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako toki entitateak finantzatzeko foru lege proiektu bat egin dezan, eta proiektu horretan segurtasun juridikoz eta modu iraunkorrean ezar dezan nola hartu behar duten toki entitateek dagokien parte Nafarroako tributuetatik, zer kopuru har ditzaketen eta nola eguneratu behar diren kopuru horiek.

Hirurogeita laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere lehentasun nagusia izan dadin langabeziaren aurkako borroka, eta apustu egin dezan, lidergo publiko abiapuntu hartuta, garapen-eredu indartsuago eta iraungarriago baten alde, prestakuntzan, berrikuntzan, gizarte-politiken sendokuntzan eta langileen babesean oinarritua.

Hirurogeita bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak bere babesa erakusten die sistemaren progresibotasuna areagotuko duen erreforma fiskalari, bai eta errenta altuak eta ondare handia dituztenek tributu gehiago ordaintzeari ere.

Hirurogeita seigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari dei egiten dio euskarekiko etsaitasunezko bere politika zuzendu dezan, gure gizartearen hizkuntz eta kultur aniztasuna aitor dezan, eta hizkuntza politiken zehaztapen eta aplikazioan adostasuna landu eta bila dezan, oinarri harturik herritarrek beren askatasunaz eginiko erabilerarekiko begirunea eta hizkuntzagatiko diskriminaziorik eza.

Hirurogeita zazpigarrena.

– Nafarroako Parlamentuak ETAREN atentatu terroristak gaitzesten ditu.

– Nafarroako Parlamentuak ETARI exijitzen dio armak eman ditzan eta berehala desegin dadin.

– Nafarroako Parlamentuak bere borondatea adierazten du gizarte berradiskidetzeko eta indarkeriaren ondorio material eta sozialak gainditzeko prozesuak bultzatzeko, terrorismoa behin betiko eta baldintzarik gabe amaitzen denean.

Hirurogeita zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du profesionalen esku jar ditzan beren lana egiteko balia-bideak eta bermeak, halako moduz non haurdunaldia nahita eten ahalko baita Foru Komunitatean, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruz estatuan onetsitako legean eta foru parlamentu honetan onetsitako foru legeetan jasotzen denari jarraituz.

Hirurogeita bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan immigrazioarekiko errespetua bultzatzen eta Nafarroan sor litezkeen arrazakeria-agerpen guztien aurka egin dezan.

Hirurogeita hamargarrena.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren kudeaketa guztiak egin ditzan euskal aldundietan, gaur egun Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa lotzen duten errepideetan bidesariak jar daitezzen saihesteko.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion formula batzuk bila ditzan AP-68 autobidea doakoa izan dadin N-232 errepidearen bikoizketa-lanak amaitzen ez diren bitartean.

Hirurogeita hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du gobernu zentralak onetsitako zeharkako zergen igoerak arbuiatzen dituela.

Hirurogeita hamabigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak berresten du Nafarroako gizartearen borondatea dela ETA banda terroristari exijitzea indarkeria terrorista utz dezan eta armak abandonatzen ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta aitorpena berresten die Estatuko segurtasun indar eta kidegoei, terroristen aurka borrokatzeko egin duten eta egiten duten lanarengatik.

3. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna eta aldeotasuna adierazten die terrorismoaren biktimei, eta beti izanen ditu gogoan demokraziaren alde egin duten lanarengatik eta merezi duten duintasuna eta justizia aitortu beharko dizkie beti.

Hirurogeita hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuarekiko behar den negoziazioa aurrera eramane dezan Nafarroaren eta Estatuaren arteko 2010-2014 bosturtekorako hitzarmen ekonomikoaren gaurkotzea adosteko, 2010eko ekitaldian batzorde koordinatzailean adostu ahal dadin.

Hirurogeita hamalauugarrena. Nafarroako Parlamentuak berriro ere adierazten du komeni dela nazioko gobernuak Nafarroari zirkulazio-alorreko erabateko eskumenak eskualdatzea, eta, ildo horretatik, gobernu hori eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu transferentzia hori adostu dezaten, Nafarroako herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzeko subsidiarotasunaren printzipioa abiapuntu hartuta; hori guztia, Nafarroako Gobernuaren eta Estatuko Gobernuaren arteko harremanen ezaugarri izan diren errespetua eta leialtasuna oinarri hartuta.

Hirurogeita hamabosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du behar diren lege-mekanismoak eta arauak artikulatu ditzan, Nafarroako Gobernuak ordezkariek Espainiako Gobernuak ordezkariekin batera joan daitezzen Ecofinen bilkuretara, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumena diren arlo fiskalekin lotutako gaiak aztertzen direnean.

Hirurogeita hamaseigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du energia elektrikoa araubide berezian ekoizten duten enpresak arautzen dituen errege dekretu berriak, segurtasun juridikoaren printzipioari jarraituz, lehendik hartutako eskubideak berma ditzan; besteak beste, zazpi mila inguru nafarrek hartutakoak.

Hirurogeita hamazazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du familiei laguntzeko politika publikoen mantentzea eta sendotzea zain dezan, garapenerako eta oreka sozial iraungarriko eta seme-alaba adingabeen premiak hobeki zaindu eta artatzeko oinarritzko guneak baitira. Aitatasun eta amatasun positiboak sustatu behar da eta familien premia gero eta handiagoei erantzuteko baliabideen mantentzea eta areagotzea ziurtatu beharra dago, guraso gisa dauzkaten ardurak hobeki eta eraginkortasun handiagoz bete ditzaten (familia bitartekaritzako zerbitzuak, familiako orientazioa eta terapia, familien topaguneak eta adingabeak babesteko baliabideak).

Hirurogeita hemezortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkuntza-programen ezarpena aurrera eramaten segi dezan, informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) curriculum-integrazioa eta irakasleen gaitasun digitala garatzea lortze aldera. Horretarako, heldu den ikasturtean, arbel digital elkarreragileak jarriko dira lehen hezkuntzako 6. mailako ikasgela guztietan.

Hirurogeita hemeretzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarrai dezan bultzada ematen ingelesaren ikasketan oinarrituriko programa irakasten duten ikasleentzako eskaintzari, irakasleak programa horretan sartzea eta prestatzea eta ikasleentzako murgiltze-jarduerak egitea bideratuko duten ekimenak eta neurriak taxutuz.

Laurogeigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren baldintzak sor ditzan generoko indarkeriaren biktimak diren emakumeei arreta emateko polizia-prozedurak bateratzeko.

Laurogeita batgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere eskumeneko esparru guztietatik emakumeen aurkako indarkeria-modu baten gisara har dezan sexu-esplotazioa helburu gisa duen emakumesalerosketa, eta bideak ezar ditzan salerosketa-sareen xede diren emakumeek Nafarroako Foru Komunitatean generoko indarkeriaren biktima diren emakumeentzat dauden baliabide guztiak eskuratu ahal ditzaten.

Laurogeita bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Mendekotasunari buruzko legera bideratutako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa igo dezan behar den kantitateari iritsi arte, halako moduz non autonomia-erkidegoek beren aurrekontuetan % 33 izanzen duten Estatuarengandik jasota; horixe baita, Mendekotasun Legearen arabera, finantzatzea dagokion kantitatea.

Laurogeita hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du araudia alda dezan Langabeziarako eta lan munduan sartzeko aldi baterako babes programa (PRODI) bateragarria izan dadin autonomia erkidegoetako gutxieneko gizarteratze-errentekin.

Laurogeita laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du emakumeen kirola zabaltzeko eta balioan jartzeko ekintzak sustatu ditzan, Espainiako telebista publikoan kirol emanaldiak doan emanez (klubentzat eta federazioentzat) eta telebista hori esparru horretako erreferentzia-tresna gisa erabiliz. Horrekin, emakumeen kirola sendotu egingen da eta populazioaren sektore horrentzako eredu bilakatu ahalko da; hain zuzen ere, emakumeek, zalantzarik gabe, kirol eta jarduera fisiko gehiago egingen dute, hori bizi-kalitate hobea lortzeko gako baita.

Laurogeita bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egungo krisi ekonomikoko egoera aintzat hartuta gobernu-ekintza koordinatuan oinarritutako gazteentzako politika areagotu dezan, betiere gazteekin elkarrizketa egituratua edukiz, gazteentzako informazio eta aholku zerbitzuak indartuz, bai eta betiere gazteen aukerak zabaltzera zuzendutako Europako gainerako prestakuntza- eta mugigarritasun-programak ere.

Laurogeita seigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresei babes ematen jarrai dezan, itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bitartez (ez soilik abalen bitartez), xede erregionaleko laguntza publikoaren esparruan, autonomia erkidego mugakideen aldean erakargarritasunik ez galtzeko bitarteko gisa.

Laurogeita zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du gure lurraldean behar diren ekintzak bultzatzen garraio- eta banaketa-sarean ebakuazio gaitasuna areagotzeko, hain zuzen ere Europar Batasunaren 20-20-20 helburuak lortu ahal izateko, jatorri berriztagarria duten energia-forma guztiak ingurumen arauak errespetatuz sortzearen bidetik.

Laurogeita zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako lanbide heziketaren plan berria egin dezan, Nafarroako lanbide heziketaren kontseilua- ren esparruan, Nafarroako gizarteak lanbide heziketaren arloan dauzkan eskakizunei erantzuteko gida estrategikoa izan dadin, bai prestakuntza arautuaren esparruan, bai enplegurako prestakuntzaren arloan ere (lanerako prestakuntza jarraitua).

Nafarroako Errepideei buruzko III. Plan Zuzendaria (2010-2018).

HERRI LAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak, 2010eko urriaren 26an eginiko bilkuran, Nafarroako Errepideei buruzko III. Plan Zuzendaria (2010-2018) onetsi zuen.

1.- 4. idatz-zatia aldatzea. III. Plan Zuzendariaren kudeaketa eta Parlamentua laurtekoei buruz informatzea.

Horren orde, honako testua jartzea:

Nafarroako Errepideei buruzko III. Plan Zuzendari hau zortzi urteko eperako da -2010-2018- eta bi laurtekotan banaturik dago. Hauek dira laurtekoak:

1. 2010-2014 laurtekoa.
2. 2014-2018 laurtekoa.

2.- 5. idatz-zatia aldatzea. III. Plan Zuzendaria gaurkotzea.

Azken lerrokadaren orde honako testua jartzea:

Errepideei buruzko II. Plan Zuzendarian ezarritako moduan, Nafarroako Errepideei buruzko III. Plan Zuzendaria ere berrikusi eta eguneratu beharko da lehen laurtekoa amaituta, 2014. urtean.

3.- Dokumentu bereizi batean azalduko dira Nafarroako Errepideei buruzko III. Plan Zuzendari-ko (2010-2018) jarduketan zerrendan jasotako obrak, bukatuta eta zerbitzuan daudenak. Hona:

Izen berria: bukatuta eta zerbitzuan dauden jarduketak, kitatu gabe daudenak.

- A-21. 2.2. tarte: Getze/Ildozin-Izko lotunea.
- A-21. 3. tarte: Izko-Judasen benta.
- N-121-A. Ostizko saihebidia.
- N-121-A. Sunbilla-Etxalar.
- N-121-A. Etxalar-Bera.

N-121-A. Bera-Endarlatsa.

N-121-A. Endarlatsako zubia.

NA-134. Andosillako saihebidia.

NA-122. Alloko saihebidia.

Berria. Corellako saihebidia.

NA-6631. Funesko saihebidia.

4.- 13.1 idatz-zatia aldatzea. Diseinatze-ko irizpide teknikoak.

Esku-hartze intentsiborako ezarritako diseinu-irizpideetan (I. mota) eta "Tokiko Sarea" izenekoan aldatzea bidearen sekzio laua: 6/7 jartzen duen tokian 6/8 jarri behar du.

5.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari.

Inbentario gisa sartzeko herriguneetara sartzeko edo herriguneak lotzen dituzten bideei eta gurdi-bideei buruzko azterlan bat, gaur egun Foru Komunitatearen errepide-sarean ez daudenei buruzkoa.

6.- Errepideei buruzko III. Plana aldatzea.

2014-2015etik 2012-2013ra aurreratzea 11. jarduketa –Saihebidia eta Los Abetosko gurutzagunea hobetzea–.

7.- 151. jarduketa –NA-7230. Viana-Aras–aldatzea.

151. jarduketa aldatzen da. Honela geldituko da: 151. NA-7230, Viana-(Saihebidia)-Aras. Viana eta Aras bitarteko bideunearen erreforma da, Vianako saihebidia barne.

8.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

NA-129. Sesma-Lodosa.

9.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

Ebro ibaiaren gaineko zubia. Mendabia-Agoncillo.

10.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

Cabanillasko saihebidia, NA-126 errepidean.

11.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

Cascanteko hegoaldeko saihebidia, N-121-C eta NA-6900 errepideen artean.

12.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

Caparrosoko saihebidia.

13.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

N-121-C errepidean, NA-6710 errepidearen eta Murchanteren arteko gurutzagunea.

14.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

NA-5151. Soltxagako sarbideak.

15.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

Sarbidea hobetzea eta NA-5008 errepidean zubi berria egitea.

16.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

NA-6801 errepidearekiko gurutzagunea NA-160 errepidean (Tutera-Cintruénigo), eta Cintruénigoko industrialdean sartzeko errepidea hobetzea.

17.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

Tuterako sarbideak (NA-160 errepidea), Cintruénigo-Corella.

18.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

N-121-A errepidetik Sunbillan sartzeko eta irteko sarbideak egitea. Sarbide horiek, herriaren hegoaldean, egin beharko dira N-121-A errepidearekiko maila ezberdinetako bidegurutzeen bidez, eta inola ere ez haren maila berean.

19.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

A-15ean, Zaragozako probintziaren mugatik A-68/AP-15arekin lotu arteko bideune berriko sarbide-

etarantz bat eginen duten errepideak hobetzeko proiektuak eta azterlan informatiboak egiteko konpromisoa eta bideragarritasun tekniko azterlanak. Helburua da eskualde horretako herriek eta industrialdeek edukiera handiko bide horretara sartzeko izanen dituzten beharriak aurreikustea.

20.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

Lizaso-Arraitz, Bizkarreta eta Mendigorriko saihebidien bideragarritasun teknikoari buruzko azterlanak egitea, eta azterlanen eta proiektuen konpromisoen artean sartzeko proposatutako saihebidien proiektua eta azterlan informatiboa.

21.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

Bi biribilgune egokitzea N-113 errepidean, 90,800 eta 91,500 kilometroetan, Cintruénigoko bi sarbideak ebazteko, eta, orobat, NA-160 errepidearekiko gurutzagunea eta II. industrialdeko sarbidea ebazteko.

22.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

Saihebidia NA-126an, Fustiñanako herria saihesteko.

23.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

“Zilbetiko sarbideak” jarduketa sartzeko, zazpi milioi euroko zenbatekoarekin (7.000.000,00 €).

24.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

“Lodosako erdilotunea” jarduketa sartzeko, hiru milioi euroko zenbatekoarekin (3.000.000,00 €).

25.- Jarduketa bat gehitzea Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariari:

“Iruña hegoaldeko sarbideak-Donapeako bidea” jarduketa sartzeko, bost milioi euroko zenbatekoarekin (5.000.000,00 €).

26.- Errepideei buruzko III. Plan Zuzendariaren titulua eta, hortaz, indarraldia aldatzea. Honela deituko da:

Nafarroako Errepideei buruzko III. Plan Zuzendaria. 2010-2018.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2010eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda